

hiruka

147. zenbakia
2019ko maiatza



M26 Udal-hauteskundeak Uribe Kostan

Ez da iraultza handirik espero

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Unai Brea, Ainhoa Bretos,
Kerman Santiago, Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Xabier Buenetxea, Kotska Mandaluniz,
Eunate Muruaga, Jon Ormaza, Izaskun Rodriguez,
Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa, Josu Zarate

Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

4

M26: udal-hauteskundeei

Aurkibidea

- 4 Udal-hauteskundeak Uribe
Kostan: Hurbileko politikaren
txanda dator orain
- 16 Getxoko San Isidro jaiak: Adin
guztietarako egitarau oparoa
- 18 Historiaren ganbara
- 19 Naturaren behatokitik
- 20 Hizkuntzaren zalantzategia
- 21 Gatz-ozpinetan
- 22 Hirudika: Santa Marina
eskalada-harrobi zaharberritua
- 28 Eider de Dios: Etxeko-langileen
bilakaera gerraostetik
trantsiziora
- 33 Gehigarria: Hezkuntza
- 42 Kirol egokitua
- 44 Hirukira Olgetan: umeentzako
denbora-pasak

Santa Marinako paret zaharberrituetan gora



22



begira



San Isidroak: Parte-hartzea jomugan

16



**ta
a**



28

Eider de Dios: «Ikusezinen artean ikusezinenak dira etxeko-langileak»



42

Kirol egokitua: oztopoak gaindituz aurrera egiten

M26 Udal-hauteskunden atarian

Hurbileko politikaren txanda dator orain

Hauteskunde-zurrunbiloan murgildu gaituen udaberri honetan, atsedeen gutxi dugu bozketatik bozketara. Espainiako hauteskunde orokorrak egin berri direla, laster izango dugu udaletako eta batzar nagusietarako kanpainaren hasiera ofiziala, ez-ofiziala aspaldi martxan dago eta, ohi denez. Ondorengo orrialdeetan, Uribe Kostako udaletan maiatzaren 26rako dauden aurreikuspenak aztertuko ditugu.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HXXXXXXXXXGVHJGFV BVGHF HGF XXRES ▶

Ezinbestean, Espainiako hauteskunde orokorrek utzitako arrastoa gogoan dugula ekin behar diogu udaletarako bozketek ekar dezaketenaren azterketari. Hala ere, gauza jakina da ez dagoela batetik besterako estrapolazio zuzenik egiterik, boto-emaille ugarik hautu desberdina egiten baitute hauteskundeak mota batekoak edo bestekoak izan, eta horrez gain oso kontuan hartzekoa baita udaletakoek eduki ohi duten berezitasuna: goragoko aginte bati men egiten ez dioten herri-hautagaitzak, independenteak alegia, gure eskualdean alkatetzarik izan ez arren gobernuan nor egongo den erabakitzeko giltza izan dutenak zenbaitetan. Gaur egun, Uribe Kostako hamar udalerrietako 150 zinegotzietatik, 23 dira udal-hautagaitza independenteetakoak.

ESKUALDE JELTZALEA. Tradizioz, EAJ izaten da Uribe Kostako udal denetan alderdirik bozkatuena hauteskunderen hauteskunde, eta alkatetza gehienak ere hark eskuratzen ditu. Azken agintaldietako salbuespen bakarra Sopela izan da: 2011ko udal-hauteskundeetan Bildu 200 botoko aldeaz gailendu zitzaizkion jeltzaleei, baita aginte-makila lortu ere. Plentzia da EAJren nagusigoa hausten duen beste udalerria: botorik gehien jaso arren, alkatetza beste batzuek eduki dute, koalizioak medio. Hala, EH Bilduk du gobernu gaur egun hiribilduan. Ikusteko dago, ordea, Plentziako Independenteek hauteskundeetan parte hartzeari uko egin izanak zer eragin izango duen. Gainerako

Uribe

EAJ
PSE-EE
U. Podemos
EH Bildu
PP
C's
Vox
ABSTENTZIOA

Apirilaren 28ko hauteskunde orokorren emaitzak U

Barrika			Berango			Erandio			Getxo			Gorliz		
	2019	2016		2019	2016		2019	2016		2019	2016		2019	2016
EAJ	%40,3	%33,3	EAJ	%37,4	%30,7	EAJ	%33,1	%27,3	EAJ	%36,8	%30,1	EAJ	%47,8	%38,6
EH Bildu	%20,0	%17,2	U. Podemos	%16,3	%27,6	PSE-EE	%23,7	%16,7	PP	%15,3	%24,6	EH Bildu	%16,8	%13,9
U. Podemos	%16,7	%29,1	PSE-EE	%15,6	%9,5	U. Podemos	%20,1	%33,5	PSE-EE	%14,1	%9,1	U. Podemos	%16,3	%28,5
PSE-EE	%12,0	%7,5	EH Bildu	%14,8	%12,7	EH Bildu	%10,9	%8,8	U. Podemos	%12,1	%20,7	PSE-EE	%10,0	6,8
PP	%4,6	%7,9	PP	%6,9	%12,9	PP	%4,8	%8,8	EH Bildu	%10,7	%8,5	PP	%3,9	%7,9
C's	%3,2	%3,4	C's	%4,3	%4,6	C's	%2,5	%2,8	C's	%5,1	%5,1	C's	%1,8	%2,1
Vox	%1,0	%0	Vox	%2,5	%0,03	Vox	%1,9	%0,1	Vox	%3,9	%0,1	Vox	%1,2	%0,1
ABSTENTZIOA	%26,3	%33,4	ABSTENTZIOA	%21,2	%29,9	ABSTENTZIOA	%26,1	%33,9	ABSTENTZIOA	%21,0	%27,4	ABSTENTZIOA	%21,4	%29,5

Kosta

2019	2016
%37,1	%30,0
%15,9	%10,5
%15,8	%26,0
%12,0	%9,5
%10,0	%16,8
%4,0	%4,2
%2,9	%0,1
%22	%29,4,4

DATUEN ITURRIA:
ESPAINIAKO
BARNE MINISTERIOA

udalerriei dagokienez, apirilaren 28an eskuratutako emaitza onek iradoki egiten dute jeltzaleak gorabehera handirik gabe gailenduko direla.

Eskualdeko hamar alkateetatik lau baino ez dira joango berriro zerrendaburu: Barrikakoa, Berangokoa, Plentziakoa eta Urdulizkoa. Horrek esan gura du gutxienez sei alkate berri izango ditugula. Bestalde, EAJ faboritotzat duten kinielak betez gero, hamarretik lau alkate izango dira emakumezkoak; bost, jeltzaleek Plentzian ere makila lortuko balute. Gaur egun, hiru dira emakumezko alkateak Uribe Kostan: Berangokoa, Gorlizkoa eta Leioakoa.

ELKARREKIN PODEMOS ETA VOX. Eusko Legebiltzarrera aurkeztu zuten koalizioa udal-hauteskundeetara ere eroatea erabaki dute Elkarrekin Podemos osatzen duten hiru alderdiek (Ahal Dugu, IU-Ezker Anitza eta Equo Berdeak); Uribe Kostan, hain zuzen, sei hautagaitza aurkeztuko dituzte. Udalerri batzuetan, orain dela lau urte esparru ideologiko berean sortutako herri-hautagaitzak aurkeztuko dira berriro ere, eta horrek talkaren bat sortu du, barruko orrialdeetan xeheago aztertuko dugunez. Azkenik, Vox aipatu beharra dago. Alderdi ultraeskuindarra hutsaren hurrengoa izatetik 3.000 boto lortzera igaro da Uribe Kostan hauteskunde orokorretan, eta lau udaletan aurkeztuko du hautagaitza maiatzaren 26rako: Berangon, Erandion, Getxon eta Leioan. ◀

Uribe Kostan, herriz herri

Leioa			Lemoiz			Plentzia			Sopela			Urduliz		
	2019	2016		2019	2016		2019	2016		2019	2016		2019	2016
EAJ	%34,8	%27,9	EAJ	%49,3	%45,0	EAJ	%47,2	%40,8	EAJ	%39,5	%31,1	EAJ	%42,2	%37,0
PSE-EE	%19,8	%13,8	EH Bildu	%27,0	%22,0	EH Bildu	%18,2	%13,9	U. Podemos	%20,4	%33,6	U. Podemos	%17,9	%31,5
U. Podemos	%19,5	%30,7	U. Podemos	%15,4	%26,9	U. Podemos	%15,4	%26,9	EH Bildu	%18,1	%15,4	EH Bildu	%17,3	%14,1
EH Bildu	%9,4	%7,2	PSE-EE	%3,2	%1,3	PSE-EE	%9,7	%5,3	PSE-EE	%12,5	%8,0	PSE-EE	%11,3	%6,7
PP	%7,4	%13,3	PP	%1,3	%1,9	PP	%4,3	%8,1	PP	%3,3	%6,6	PP	%3,6	%6,0
C's	%3,9	%4,6	C's	%1,0	%1,3	C's	%2,0	%3,0	C's	%2,4	%3,0	C's	%2,6	%2,4
Vox	%2,8	%0,1	Vox	%0,8	%0	Vox	%1,4	%0,1	Vox	%16	%0,1	Vox	%1,1	%0,1
ABSTENTZIOA	%22,5	%30,5	ABSTENTZIOA	%20,0	%27,0	ABSTENTZIOA	%21,3	%27,6	ABSTENTZIOA	%22,3	%30,5	ABSTENTZIOA	%20,8	%29,2

Getxo

Emakumezko alkate bat izan dezake udalerriak lehenengoz

Udal-hauteskundearen bilakaera historikoari jarraituta, baita hauteskunde orokorren emaitzei erreparatuta, litekeena da EAJk eskuratzea berriro ere Getxoko alkatez. Hala ere, 2015ean gertatu bezala, akordioak lortu beharko ditu Gobernu-taldea osatzeko; aurrekoan PSE-EE alderdiagaz egin zuen.

ERREDAKZIOA ▶

Maiatzaren 26ko udal-hauteskundeetarako hautagai-tza gehien batu dituen udalerria da Getxo Bizkaian, Bilboren ondoren. Denera, 11 alkategai lehiatuko dira Getxoko Udalaren ardura hartzeko; hala ere, joan den apirilean izandako hauteskunde orokorretako emaitzetan oinarrituta, litekeena da denen artean EAJ gailentzea, historikoki egin duen legez. Datu horiek ikusita, jeltzaleek PPrekiko aldea handituko lukete. Izan ere, Amaia Agirrek gidatutako taldeak zinegotzi bat gehiago lortuko lukete, popularrek beste bat galduko luketen bitartean, Vox taldeak jasotako bozken eraginez.

Gaur egun, EAJk eta PSE-EEK osatutako Gobernu-taldeak du Getxoko Udalaren ardura, talde bi horien 9 eta 2 zinegotziek osatuta. PPK, aldiz, 5 zinegotzi ditu eta EH Bilduk eta GUK taldeak launa. Udalbatzako azken aulkia Ciudadanoseko zinegotziak betetzen du, EAEn talde laranja duen zinegotzi bakarra, hain zuzen ere.


HAUTAGAITZAK. Bilbo hiriburuaren ondoren, hautagaitza gehien dituen udalerria da Getxo Bizkaia osoan. Hala, gaur egun ordezkariak duten sei alderdiez gainera, beste bost batu zaizkie lehia. Alde batetik GUK Getxoko Udal Kandidaturak Podemosetik aldentu eta bere kabuz aurkeztuko da hauteskundeetara. Modu horretan, EAEn egindako akordioari jarraituta, Ahal Duguk eta Equo Berdeak taldeak bat egin dute Getxon, Elkarrekin Podemos izena duen koalizioagaz aurkeztuta. Libres por Euskadi taldeak Getxo aukeratu du politikagintzan murgiltzeko, Arabako Labastidagaz eta Vitoria-Gasteizagaz batera. Partido de Acción Solidaria Europea (Solidaria) eta Ganemos taldeak ere Udalbatzan bere lekua egiten saiatuko dira aurten. Azkenik, duela lau urte egin zuen bezala, Vox alderdi ultraeskuindarrak zinegotziren bat edo beste lortzea saiatuko da aurten ere.

ALKATEGAIAK. Hiru legealdiren ondoren, Imanol Landa gaur egungo Getxoko alkateak lekukoa emango dio Amaia Agirreri. Komunikazio eta Herri-Partaidetzarako zinegotzia da gaur egun Agirre eta jeltzaleen zerrendaburua da maiatzaren 26ko hauteskundeetarako. Popularren artean, Eduardo Andrade aurkeztuko dute alkategai. Imanol Landa alkatearen ondoren, Getxoko Udalbatzan urte gehien daraman pertsona da Andrade, 2003tik talde horretako zinegotzia baita.

Gaur egun EH Bildu udal-taldearen bozeramailea den Nerea Guijarrubia izango da koalizio abertzalearen alkategaia. Gazte-gaztetik herri mugimenduetan ibilitakoa da, eta 2016. urtean hasi zen zinegotzi lanean Udalean, Arantza Gutierrezen orde.

GUK Getxoko Udal Kandidaturak aldetak izango ditu aurten. Podemos alderditik aldentuta, herri-formazio gisa aur-

Alkategaiak Getxon

EAJ
AMAIA
AGIRREPP
EDUARDO
ANDRADEEH BILDU
NEREA
GUIJARRUBIAGUK
ENRIQUE
PRADAPSE-EE
CARMEN
DÍAZCIUDADANOS
BEGOÑA
LOSILLAELKARREKIN
PODEMOS
IGNACIO
ROBLES

OHARRA: Gaur egun Udalean ordezkariak duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona. Elkarrekin Podemosen kasuan, GUKeko kide batzuk (zinegotzi bat barne) bertara joan izanagatik gehitu dugu zerrenda honetan.

2015eko emaitzak



keztuko da, Kike Pradaren gidaritzapean. Paula Amieva gaur egungo GUKeko bozeramailea, aldiz, Elkarrekin Podemos koalizioaren hautagai gisa aurkeztuko da, Ignacio Robles zerrendaburua atzetik. Susana Andollo GUKeko zinegotziak ere Amievaren bidea jarraitu du eta Elkarrekin Podemosen zerrendan aurkeztuko da maiatzaren 26ko hauteskundeetara.

PSE-EEK zerrenda berria aurkeztuko du aurten. Izan ere, Txefo Landa politikagintzatik aldentuta, Carmen Diaz Erandioko zinegotzi ohiak hartuko du Getxoko sozialisten gidaritza.

Ciudadanos taldeak ere aldetak izango ditu aurten. Gaur egungo zinegotzia den Santiago Sainz Bizkaiko Foru Aldundiarako zerrendaburua izango da alderdi laranja; hala, bere ordezkia izango da udalerrian Begoña Losilla biologoa.

Libres por Euskadi (LxE) taldeak Alejandro Zabalar eman dio alkategai izatearen ardura; Partido de Acción Solidaria Europeak (SOLIDARIA), aldiz, Juan Pedro Azcuneri eman dio ardura hori. 2015eko udal-hauteskundeetan Partido Familia y Vida (PFyV) taldeagaz koalizioan aurkeztu zen Vox alderdi ultraeskuindarra. Aurten, aldiz, bere kabuz aurkeztuko da, Miguel Angel Gomez zerrendaburua izanda. Azkenik, Ganemos taldeak lehenengo aldiz aurkeztuko da hauteskundeetara Getxon, Amaia Eguiraun alkategai gisa izanda.

ORDEZKARITZA NAGUSIENEN PROGRAMAK. Jeltzaleen zerrendaburuak Getxo “berrikuntza ekonomikorako zentroa eta kultura, kirola, turismoa, merkataritza eta zerbitzu profesional aurreratuak” dituen udalerria izatea du amets. Aldi berean, Getxo “sormenezko abangoardiaren” erreferente bihurtzea gura du Agirrek, “goi-mailako kultur eskaintza izateko aukera ematen duten agertokiak dituen”. Horrez gainera, aisialdi osasungarriarako gune publikoak dituen kirol hiria bihurtu gura du udalerria.

PPri dagokionez, udalerriko auzo denetan aparkalekuak eraikitzea, edukiontzien pedala berreskuratzea eta kale-garbitzaren maiztasuna publiko egitea dira alderdiaren proposamenetako batzuk. Horrez gainera, udalerriko segurtasuna areagotzea, tokiko komertzioa bultzatzea eta udalerriko eraikin zaharrak berreskuratzea ere proposatu dute.

“Gu izango gara EAJ-PP-PSE hirukoteak bultzatu duen ereduaren alternatiba bakarra”, adierazi zuen Nerea Guijarrubia EH Bilduko alkategaiak hautagaitzaren aurkezpenean. Koalizio abertzaleak azaldu zuenez, euren lehentasuna da orain arte bultzatutako hirigintza-eredua aldatzea, babestutako etxebizitzak bultzatzea, landa-eremuak babestea, dendari txikien aldeko neurriak hartzea eta kultura indartzea. Era berean, gazteentzako etxebizitza kolaboratiboak sortzea ere bada euren helburua, baita alokairuarentzat diru-laguntzak handitzea ere. Bestalde, hainbat auzotan “kultur ekipamenduak” sortu gura dituzte.

PSE-EEK, bere aldetik, proiektu “gazte eta berri” bat aurkeztu gura du, “udalerrian eragina izateko prest dagoena”. Berdintasunaren aldeko borroka defendatu dute, “pertsonegan oinarritzen garelako”. Era berean, etxebizitza eskubidearen eta politika sozialak berriz pentsatzearen alde lan egiteko konpromisoa berretsi du hautagai sozialistak, udalerri iraunkor baten aldeko apustua egiteagaz batera.

GUK eta Ciudadanos taldeek ordezkariak dituzte gaur egun Getxoko Udalbatzan. Hala ere, hainbat arazo direla medio, oraindino ez ditugu euren programaren nondik norakoak lortu. ◀

Leioa

Gaur egungo zinegotziak, zerrendetan nagusi

Dozena erdi indar politikoren artean aukeratu ahal izango dute botoa nori eman, datorren maiatzaren 26an bozkatzera joango diren leioaztarrek. Mari Carmen Urbietak ez du alkatetzan jarraituko, baina EAJ garaile izatekotan (eta kontrakoa ezusteko itzela litzateke), aldaketa ez da hain handia izango.

UNAI BREA ►

Esperientziaren alde egin du Leioako Euzko Alderdi Jeltzaleak udal-hauteskundeetarako: bere zerrendako lehenengo bostak zinegotziak dira gaur egun. Denetan buru, Iban Rodriguez alkateordea, eta azken sasoian udal-gobernuaren aurpeirik ezagunena, hedabideen aurrean behinik behin hark egin baititu normalean bozeroale-lanak. Zentzu horretan, kanpo-irudi aldetik ez da hainbeste igarriko alkatea aldatzea. Alkateordea ez ezik, Hirigintza, Ingurumen eta Garraio zinegotzi ere bada Rodriguez. Zalantza gutxi dago hark hartuko duela Mari Carmen Urbietak sei urteren ostean utziko duen kargua.

ZINEGOTZIAK DIRA IA ZERRENDABURU DENAK. Orain dela lau urteko bigarren indarra, Esnatu Leioa, ez da izen horregaz aurkeztuko oraingoan. Ez guztiz, behintzat. Elkarrekin Podemos koalizioak (Ahal Dugu, Ezker Anitza-IU eta Equo Berdeak) udal-tako hauteskundeetara joateko hartutako erabakiak mota guztietako egoerak sortu ditu herrietan. Leku batzuetan Elkarrekin Podemosen murgildu dira 2015ean Podemosen ildotik sortutako herri-hautagaitza independenteetako kideak, eta beste batzuetan norbere aldetik joango da. Leioa lehenengo multzokoa da, baina ñabardura txiki batez: «Esnatu Leioa» berbak mantendu egingo da hautagaitzaren izenean. Elkarrekin Podemos-Esnatu Leioa, honenbestez. Alkategaia Jose Ignacio Vicente da, azken lau urteetan zinegotzi izandakoa. Beste aurpegi ezagun bat.

Zinegotzi bat gutxiago lortu arren, botoetan Esnatutik hurbil geratu zen 2015ean EH Bildu, udaleko hirugarren indarra. Euren ere jardunean dagoen zinegotzi bat aukeratu dute zerrendaren goiko alderako: Jokin Ugarte, 2011tik udalean dagoena. Gainerakoan, aurpegi berriak dira nagusi koalizioaren hautagaitzan. «Zerrenda plural eta zabala» aurkezteko borondateagaz jokatu du EH Bilduk, azaldu dutenez.

EH Bilduk bezala, hiru zinegotzi ditu PSE-EEk, hirurak ere Gobernu Batzordean, EAJk eta sozialistek EAEn lortutako akordioa dela medio. Eurretako bat izango da zerrendaburua: Juan Carlos Martinez, momentuz Gizarte Ekintza, Osasungintza, Berdintasun eta Garaien lankidetzako zinegotzi karguan dagoena izandakoa. Zerrendan joango da, modu berean, Enara Diez, gaur egun Berdintasun eta Hezkuntza zinegotzia dena. Apirilaren 28an oso emaitza ona lortu zuten sozialistek Leioan, EAJren ostean bigarren.

Azkenik, PP ez da salbuespena izango, eta daborduko zinegotzia den pertsona bat aurkeztuko du alkategai: Jazael Martinez. EAEn krisi betean daudela, oraingo zinegotzi biei eusten ahaileginduko dira popularrak. Ikusi beharko da helburu hori

Alkategaiak Leioan



OHARRA: Gaur egun Udalean ordezkartza duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

lortzeko bidean norainoko oztopoa suertatzen zaion maiatzaren 26rako aurkeztu den seigarren indarra: Vox. Hauteskunde orokorretan 542 leioaztarrek eman zioten botoa Abascalen alderdi ultraeskuindarrari.

KIROLDEGIA, DENEN AHOAN. Kiroldegi berria izango da Leioaren erronkarik handiena hastera dagoen agintaldian, Iban Rodriguez EAJren hautagaiak bere alderdiaren *Gure Lurra* al-dizkariari emandako elkarrizketa batean azaldu zuenez. Haren esanetan, datozen lau urteetan gauzatuko da proiektu hori. Bestalde, garraio publikoaren erabilera bultzatzeko neurriak hartu gura ditu Rodriguezek (aipatutako elkarrizketaren ostean ipini zen martxan Lejoan Busa zerbitzua), eta erdigunean aparkatzea errazteko ideiak ere azaldu zituen, Leioako leku gehienetan autoa uzteko zailtasun handirik ez dagoela pentsatu arren. Kultur arloan, Umore Azoka indartzeko helburua aipatu zuen Rodriguezek, hala nola kultur ekimenak auzoetara hurbiltzekoa.


Elkarrekin Podemos-Esnaturentzat, lehentasunetako bat da urteetan galdutako zerbitzu publikoen kudeaketa udalera bueltatzea, «baldintza egokietan diharduten langileek herritarrei zerbitzu hobea ematen diete eta». Udaleko gai garrantzitsuen gaineko erabakiak kontsulta bidez hartzea ere proposatzen du Jose Ignacio Vicente buru duen hautagaitzak; plano zehatzago batean, udaleko zenbait gunetan metroaren ibilbidea lur azpira erotearen alde dago Elkarrekin Podemos-Esnatu, eta zelan ez, kirol-ekipamenduaren gaineko eztabaida oso garrantzitsua izango dela uste du.

ALOKAIRU SOZIALAK. Kiroldegiaren gaia du berbabide EH Bilduk ere. Berri bat egitearen beharra azpimarratzen du koalizioak, eta haren ezaugarriak denen artean adostu beharra dagoela aldarrikatu. Halaber, auzoak biziberritzeko plana gura du EH Bilduk, parte-hartze bidez egindakoa eta auzokideen kontrolpekoa. Alokairu soziala behar duten guztien esku ipintzearen alde ere agertu da indar abertzalea, eta oro har politika ekologista eta feministak indartzearen aldeko apustua egin du, den-dena herritarren parte-hartzea sustatu bitartean.

Juan Carlos Martinez PSE-EEren alkategaiak, bere aurkezpenaren egunean, «fokua pertsonengan ipintzeko beharra» azpimarratu zuen, EAEko sozialisten aurre-kanpainako lelo nagusiari eutsiz. Konkreтуagoa izan zen Gizarte Zerbitzu denak eraikin bakarrean biltzeko proposamena egin zuenean, Egune-ko Arreta Zerbitzua leku horretantxe ipinita. Etxebizitza komunitarioak eta zaintzapeko apartamentuak martxan ipintzeko beharra ere aldarrikatu zuen Martinezek, eta bereziki gazteen-tzako alokairuzko etxeak eskatu zituen.

POLIZIA GEHIAGO ETA KOMISARIA BERRIA. PPK, legegintzaldian hainbatetan egin bezala, segurtasunaren arazoa daroa bere gai garrantzitsuen zerrendako lehenengo lekura. Polizia gehiago kontratatzea gura dute popularrek, eta erdigunean komisaria berria ipintzea. Ezin aipatu gabe utzi, jakina, kiroldegi berriaren gaia, zalantza barik legegintzaldiko eztabaidarik handienetakoak piztuko dituen. Halaber, bazterreko auzoei arreta handiagoa ematea eta La Avanzadako errepidea eta Metroa lur azpira erotea ere gura luke Jazael Martinezen taldeak. Azkenik, zenbait zerga eta tasa jaisteko eskaria erango du PPK udaltxera. ◀

2015eko emaitzak



Erandio

Sigla-zopak, langabezia eta aparkalekuen arazo zaharra

Getxoren ostean, Uribe Kostan hautagaitza gehien duen udala da Erandio: bederatzia. Alkategaien artean aurpegi berriak dira gehienak, eta segurua da agente-makilak beste ugazaba bat edukiko duela laster, Joseba Goikouriak, gaur egungo alkateak, ez du karguan jarraituko eta.

UNAI BREA ►

Aitziber Oliban aukeratu du EAJk, Joseba Goikouriak utzitako lekua betetzeko. Olibanek ez du Erandion kargurik gaur egun, baina badaki Udalean jardutea zer den, 2003tik 2011ra bitartean zinegotzia izan zen eta. Gainera, aldamenen edukiko ditu orain gobernu-lanetan dabilen asko. Erandion dituen 21 zinegotzietatik bederatzia dira EAJrenak, eta horietako sei aurtengo hauteskundeetarako jeltzaleek eman duten zerrendaren lehenengo zortzi lekuetan daude. Alde horretatik aldaketa handirik ez, honenbestez.

Are nobedade gutxiago dakar PSE-EEren zerrendak: EAJgaz batera Erandio gobernuan dauden lau zinegotzi sozialistak dira, hain zuzen, hautagaitzako lehenengo laurak. Zerrendaburua Jorge Gonzalez da, gaur-gaurkoz Kirolak, Berdintasuna, Osasuna eta Kontsumoa Saileko zinegotzia dena. Bera da momentu honetan Erandio Udalean jesarlekua duten alkategai bietako bat. Besteak, Rafael Vaquerok, ibilbide bihurtuak egin du azken urteetan: Ganemos Erandioaren bitartez sartu zen Udaletxean, adskribatu gabeko zinegotzi modura eman du amaitzeaz dagoen agintaldiaren zatirik handiena, eta Solidaria alderdi sortu berriaren zerrendaburu modura aurkeztuko du bere burua oraingoan.

Kasu berezia da PPren alkategai Susana de Cosena ere: zinegotzia izan, bada, baina ez Erandion, bere bizilekuan baino, Getxon alegia. Gaur egun popularren ordezkari bakarra den Aiala Eguiluzen lekua hartuko du De Cosek, ordezkari horri eusteko helburuagaz. Datua estrapolatzea guztiz arriskutsua bada ere, esan beharra dago azken hauteskunde orokorretan botoen % 4,8 eskuratu dituela PPK Erandion. Zinegotziren bat lortzeko, derrigorrezkoa da %5 jasotzea gutxienez.

Berrikuntzaren ildotik ere, EH Bilduk Iñaki Agirre aukeratu du bere zerrendako buru, baina oraingo zinegotzietako bi ditu hirugarren eta laugarren lekuan. Biak sartzeko, orain dela lau urteko emaitza hobetu beharko du koalizioak. Momentuz, baikortasuna eragin du apirilaren 28an lortutakoak: 2016ko hauteskunde orokorretan baino 400 boto inguru gehiago.

GANEMOS, PODEMOS ETA BESTE. 2015eko udal-hauteskundeetan, herriko bigarren indarra Ganemos Erandio izan zen. Lau zinegotzi lortu zituzten orduko hartan, baina hiru geratu zitzaizkien arestian aipatutako Rafael Vaquerok taldea utzi zuenean. Sasoi hartan Ganemos soilik zen euren izena; oraingoan, baina, ezinbestean Erandio «abizena» gehitu behar izan dute, beste hautagaitza bat aurkeztu baita Ganemos izenagaz. Horri gehitu egin behar zaio Elkarrekin Podemosek ere udal-hauteskundeetan parte hartzeko erabakia hartu izana. Saia gaitzen korapiloa askatzen.

Alkategaiak Erandion



OHARRA: Gaur egun Udalean ordezkariak duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona. Solidariaren kasuan, zerrendaburua daborduko zinegotzia (momentu honetan adskripziorik bakoa) izateagatik gehitu dugu.

«Orain dela lau urte Podemosek udal-hauteskundeetara ez joatea erabaki zuen» azaldu digu Ganemos Erandioko zerrendaburu Javi Bilbao Tudancak, «eta ondoren tokia tokiko hautagaitzak sortu ziren». Bilbaok berak harreman estua izan du Podemosegaz, eta horregatik alderdi moreagaz lotu izan da Ganemos Erandio, «behin eta berriro esan dugun arren gu ez gara Podemos; guk herrian egiten dugu politika, alderdi tradizionalen aurka borroka egiten duen herritar-talde bat gara». Saiatu dira Erandion Ganemos izena duen beste hautagaitza aurkeztu ez dadin, bai azkenean hauteskunde batzordeak baimendu egin du biek hauteskundeetan parte hartzea.

Esparru ideologiko bertsuan dabilta hainbeste siglak herri-tarrak nahastuko ote dituen galdetuta, ezetz dio Bilbao: «Jendeak ondo daki nor egon den azken lau urteetan euren esku-bideen alde Udaletxean lanean». Antzeko ustea du Elkarrekin Podemosek. Bertako iturrien esanetan, Eusko Legebiltzarrean koalizioak egindako lanari esker herritarrek «ondo dakite nortzuk garen». Maiatzaren 26an ikusiko da emaitza.

Hautagaitzen multzoa osatzeko, beste mutur ideologikora joan behar dugu: Voxena izango da Erandion aurkeztuko den bederatzigarren zerrenda. Botoen % 1,6 jaso zuten apirilaren 28ko hauteskunde orokorretan.


HAUTAGAIEN PROPOSAMENAK. «Langabeziaren kontrako borroka, gizarte-prestazioak eta herrigunetik urrun dauden bizitokiei eman beharreko arreta eta zerbitzua» dira 2015-2019 legealdirako Aitziber Oliban EAJren hautagaiak dituen lehentasunezko helburuak. Erandion sarri aipatzen den aparkalekuen arazoaz ere kontziente dela aitortzen du Olibanek, eta arlo hori hobetzeko lan egingo duela dio, baita ere kirol-zerbitzuen ga-beziak konpontzeko.

Ganemos Erandio mezu argia eman digu Javi Bilbaoren ahotik: «Alderdi tradizionalei arre egiteko hemen dagoen alternatiba bakarra gurea eta EH Bildurena da, ez dago besterik; guk ez dugu beste inorekin gobernu-akordiorik egingo, ez gara egongo zerbitzu publikoak pribatizatu dituzten EAJ eta PSEekin». Bilbaoren iritziz, EAJk eta Podemosek Pedro Sánchez babesten badute Madrilen, zaila izango da hiruko harreman hori udaletara ez eroatea. Zerbitzu publikoen kudeaketa berriro udalaren esku uztea eta herritarren parte-hartzea benetakoa eta erabatekoa izan dadin tresnak ipintzea dira Ganemos Erandioaren egitasmoaren ardatzetako batzuk.

PSE-EEk udal-gobernuan egindako lanaren balioa azpimarratu du. Jorge Gonzalez alkategaiaren berbetan, sozialistek kudeatu dituzten arloek inoiz baino baliabide gehiago izan dute, eta besteak beste gizarte-ekintzan egindako lana azpimarratu du. Uribe Kostan langabezia handiena duen udala Erandio dela gogorarazi, eta «industriarentzat erakargarriak izateko» beharra aldarrikatu du.

EH Bilduren proposamenen artean Tartanga ingurua aisialdirako gune bihurtzea dago, inguru horretan ehunka etxebizitza eraiki gura dituzten honetan. Altxagan eta Astrabuduan aparkaleku publikoak egitearen alde lan egingo duela iragarri du koalizioak: «Kaleak pertsonentzat berreskuratu nahi ditugu», azaldu du Iñaki Agirre hautagaiak, «eta merkataritza sustatzeko programak martxan ipini». PPK, azkenik, Tartangako planaz berriro hausnar dadila gura du, eta aparkalekuen arazoari aurre egiteko udaleko indar denek plan estrategiko bat gara dadila, besteak beste. ◀

2015eko emaitzak



Sopela

Sopelan bat egin dute eskolak handitzeko helburuagaz

Udalerriko Zipiriñe eskola eta Iberre institutua handitzea da aurtengo udal-hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi gehienek errepikatu duten helburua. Horrez gain, udalerriko trafiko arazoak konpontzea eta etxebizitza publikoak eskaini gura dituztela ere aipatu dute hainbatek.

AINHOA BRETOS ►

Sopelako udalerriak hamazazpi zinegotzi dauzka gaur egun, horietatik zazpi EAJ-renak dira, eta sei EH Bildu-renak. Denok Batek bi ditu guztira, eta zinegotzi bana PSE-EEk eta Orain Sopelak. Historikoki, Uribe Kostako herri guztietan irabazi ditu EAJ-k hauteskundeak beti, behin izan ezik. Izan ere, 2011n EH Bilduk garaitu zuen Sopelan. Apirileko hauteskunde-orokorretako datuak kontuan hartuta, bestalde, Podemos litzateke bozkak zenbatuta udalerriko bigarren indarra, EAJ-ren atzetik.

HAUTAGAITZAK. Gaur egun ordezkariak duten alderdietatik Orain Sopela da aurtengoetara aurkeztuko ez den bakarra, eta errepikatu egingo dute EAJ-k, EH Bilduk, PSE-EEk eta Denok Baterak. EAEn egindako akordioaren ildotik, Ahal Duguk, Ezker Anitza-Iuk eta Equo Berdeak-ek bat egin dute Sopelan ere, eta Elkarrekin-Podemos izenagaz koalizioan aurkeztuko dira hauteskundeetara. Azkenik, hautagaitza aurkeztuko du PP-k berriz ere. Azken honek zinegotzi bat irabazi zuen 2011ko udal-hauteskundeetan, 2015ekoetan, aldiz, bat ere ez. Maiztaren 26ko datuetan arreta ipintzen badugu, ez du ematen oraingoan ere lortuko duenik, izan ere, 270 bozka besterik ez ditu lortu (%3,28).

ALKATEGAIK. EAJ-ko Gontzal Hermosilla da gaur egun Sopelako alkatea. Aste bakar batzuk besterik ez zaizkio falta lanpostu horretan, bestalde. Izan ere, Josu Landaluze aurkeztuko du EAJ-k alkategai. 2011n ere hura izan zen alderdiaren zerrendaburua, eta hori baino lehenago alkateordea.

EH Bildutik Unai del Burgo sopoloztarra aurkeztuko dute alkategai, 2018ko urritik talde horretako zinegotzia da Sopelako Udalean, aurretik zegoen kide bat ordezkaturat. Udalerriko hainbat talde eta esparrutan ibilitakoa da alkategaia, eta haren ibilbidea ekonomiari, unibertsitateari eta euskalgintzari lotuta dago gehien bat.

Jon Gerediaga aurkeztuko du Denok Baterak alkategai berriz ere, 2015eko udal-hauteskundeetan ere bera izan baitzen zerrendaburua, eta bozeramaile dihardu orduak.

PSE-EEk ere hautagaitza errepikatuko du, eta Teresa Fernandez aurkeztuko du berriz ere alkategai. Gaur egun, PSE-EEk Sopelan duen zinegotzi bakarra da Fernandez, eta Enplegu eta Ekonomia Sustapen Arloa kudeatzen du.

Elkarrekin-Podemoseko zerrendaburua Manuela Ruiz Vivanco izango da. Azken legealdian, Denok Baterako zinegotzia izan da Ruiz, lehenago zegoenak dimititu ondoren.

PPk, azkenik, Berta Rodriguez aurkeztuko du alkategai. Esan bezala, alderdiak ez du ordezkariarik gaur egun uda-

Alkategaiak Sopelan



OHARRA: Gaur egun Udalean ordezkariak duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona. Elkarrekin Podemosen kasuan, euren zerrendaburua orain arte Denok Baterako zinegotzia izanagatik gehitu dugu.

lerrian. Hala ere, udaleko zinegotzia izan zen Rodriguez 2003-2007, 2007-2011 eta 2011-2015 legealdietan.

ZINEGOTZIAK. Hainbatek errepikatuko duten arren, aldaketa handiak daude zinegotzi-zerrendetan. EAJ-tik Naiara Ibarzabal da gaur egun zinegotzi diren zazpiketatik berriz zerrendetan aurkeztuko den bakarra. EH Bildutik, aldiz, Willy Vio, Ander Moreno, Juan Maria Sanchez eta Mikel Tapia zinegotziek errepikatuko dute hautagaitza. Denok Baterak zinegotzi bitik bat aurkeztuko du berriz ere, Jon Gerediaga alkategaia, hain zuzen ere, eta PSE-EEk, esan bezala, duen zinegotzi bakarra aukeratu du berriz ere zerrendaburua. Daborduko, udal-hauteskundeetako programa prestatu du alderdi bakoitzak.

ORDEZKARITZA DUTENEN PROGRAMAK. Josu Landaluzeren arabera, Sopelak bulkada behar du, izan ere, bere ustez gauza asko dago hobetzeko, lehenik eta behin udal-mailan, ondoren udalerrian islatu dadin. Azaldu duenez, hamar ildo ditu alderdiak: Urko kiroldegia berriztea, Zipiriñe eskola handitzea, babes-ofizialeko etxebizitzaren garapena, kultur-laboregaria sortzea, espazio publikoak hobetzea, emakume eta gizonen arteko parekidetasuna, Iturrieta pilotalekua estaltzea, birziklapenerako eta hondakinen kudeaketarako politika aktiboa sortzea eta garapen ekonomikoa. Horrez gain, turismoa dela eta, surf arloa indartu behar dela uste du Landaluzek, Sopelako industria kostaldean dagoela baitio.


EH Bilduri dagokionez, hirigintza eta mugikortasun eredua aldatzea da datozen lau urteetako proiekturik garrantzitsuenak Unai del Burgorentzat. Azaldu duenez, oinezkoentzako guneak sortu eta trafikoa herritik murriztu gura dute, ekipamendu egokiak indartu kultura, kirol eta aisialdian, bai ume, heldu eta nagusientzat. Etxebizitza politika aldatu gura dute ere, naturgunean (batez ere kostaldea) babestuz. Azken batean, EAJren herri-ereduagaz bat egiten ez dutela dio alkategaiak: «Etxebizitza elitistak, txaletak, trafikoa, hormigoia, multinazionalen azpi-kontratazioa, merkatal zentro handiak, euskara alorrean eta parte-hartzean makillajeak... Herria txarto antolatuta dago, handitzen etengabe eta ez, ordea, hobetzen».

Denok Bateraren proposamenak ere antzerakoak dira: Ikasketen zentro publikoak handitu gura dituzte, trafiko eta aparkalekuen arazoari irtenbideak eman, irisgarritasuna hobetu, tokiko enplegua eta tokiko ekonomia indartu, autonomoak eta bertako merkataritza-guneak lagunduz, etxebizitza publikoen alokairua sustatu, herritarren parte-hartzea bultzatu, giza-integrazioa eta pertsona guztien eskubideak bermatu, nagusien bizi-kalitatea hobetzeko neurriak hartu, emakume eta gizonen arteko parekidetasuna, gazteentzako jarduerak antolatu, animalien ongizatea zaindu, surfa eta turismoa sustatu, bidegorriak sortu, eta hondakinen kudeaketa hobetu.

PSE-EE-k, bere aldetik, enplegu duina bermatzen duen lege baten alde egingo duela esan du, baita hezkuntza eta osasun publikoaren alde ere.

Elkarrekin-Podemosek ez du alderdi moduan ordezkariarik orain, zerrendaburua, bestalde, Denok Baterako zinegotzia izan da azken legealdian. Alderdiak azaldu duenez, Sopela eraldatzeko asmoz aurkeztu dira hauteskundeetara. Beraien hauteskunde-programak bost ardatz nagusi ditu: herri eredia, eskubide sozialak eta ekitatea, demokrazia eta gardentasuna, berdintasuna eta, azkenik, herritarren parte-hartzea. ◀

2015eko emaitzak



Berango

Herriaren hazkundera zelan kudeatu, horra eztabaida

Karguan bost legegintzaldi egiteko bidean dago Anabel Landa Berangoko alkatea. Azken lau urteotako jeltzaleen bazkidea, PSE-EE, orokorretan izandako igoera mantentzen saiatuko da. Denok Batera hautagaitza ez da aurkeztuko, eta haren lekua Elkarrekin Podemosek beteko duela esan liteke.

UNAI BREA ►

U ribe Kostan alkategai berri asko aurkeztu ditu EAJk maiatzaren 26ko hauteskundeetarako, eta horren salbuespenik bada, Berango da. Ezusteko handirik ez badago Anabel Landa izango da, datozen lau urteetan ere, eskualdeko alkateetan eskarmenturik handienekoa: bosgarren laldia izango da berarentzat udalaren aginte goreneko karguan, bere alderdiko kideek hala erabakita. Ildo beretik, gaur egun udal-gobernuan dagoen taldearen zatirik handiena dago EAJk aurkeztu duen zerrendan.

Landagaz batera, PSE-EEko Nerea Jimenez izango da Berangon 2015ean aurkeztu ziren alkategaietatik errepikatu egingo duen bestea. Alegia, EAJk udal-gobernuan duen bazkidea. Azken agintaldietan izan duten jesarleku bakarrari eusten saiatuko dira sozialistak; baikor egon litezke, azken hauteskunde orokorretan Berangon lortutako emaitzari begiratuta.

AURPEGI BERRIAK. Udaleko bigarren indarrak, EH Bilduk, ohi baino zailtasun handiagoa izan du zerrenda osatzeko, eta izen berri asko aurkeztu ditu. Zerrendaburua David Martin izango da, Udalean esperientziarik gabea, eta gaur egungo zinegotzietatik bakararra dago zerrenda berrian, hirugarren lekuan hain zuzen. Hauteskunde orokorretan 2016ko emaitzak hobetu ditu EH Bilduk, eta Unidas Podemosen eta PSE-EEren antzeko boto-kopurua lortu du, haien atzetik bada ere.

2015ean hirugarren egin zuen Denok Batera hautagaitza ez da aurkeztuko oraingoan. Berangon, Sopelan eta Urdulizen aurkezteko sortu zen taldea, garai hartan Podemosen zirkuluetan zebiltzan zenbait pertsonaz eta independentez osatuta, baiian lau urte geroago Sopelan baino ez du hautagaitza errepikatuko. Berangon oraindino daukan zinegotzia (bestea taldetik irten zen eta adskribatu gabe dago), Emilio Lobato, Elkarrekin Podemoseko zerrendan joango da, baina azken lekuan, betegarri modura. Izan ere, alderdi moreak Bizkaiko Batzar Nagusietarako aurkeztu duen hautagaitzan dago Lobato.

Logikoena dirudi Elkarrekin Podemosek Denok Bateraren lekua hartuko duela pentsatzeak (elektoralki behinik behin) baina ikusteko dago zelan hartuko duten haien jarraitzaileek herriko hautagaitza independentea ez aurkezteko erabakia, eta botoetan igarriko ote den. Koalizioaren alkategaia, bide batez esateko, Koldo Endika Martinez izango da.

PPk ere berritu du zerrendaburua. Nork eta Jorge Panera getxotarrak hartuko dio erreleboa azken lau urteetan popularren zinegotzi bakarria izan den Maria Dolores Malo de Molinari. Bizkaiko Nuevas Generacioneseko koordinatzaile nagusia da Panera, eta iazko irailean polemika handia piztu zuen PPko gazteen bideo batean protagonistetako bat ere bada. Besteak beste, ez-

Alkategaiak Berangon

EAJ
ANABEL LANDAEH BILDU
DAVID MARTINPSE-EE
NEREA JIMENEZPP
JORGE PANERAELKARREKIN
PODEMOS
KOLDO ENDIKA
MARTINEZ

OHARRA: Gaur egun Udalean ordezkari izan duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona. Elkarrekin Podemosen kasuan, orain arte Denok Baterakoak izandakoak zerrenda horregaz bat egin izanagatik gehitu dugu.

ker abertzalearen ikurrak kentzen ageri zen Jorge Panera bide hartan, eta gertakari haren gaineko komentario ugari zabaldu ziren sare sozialetan Berangoko alkatetzarako aurkeztu zuela jakin zenean. Polemika ala gabe, PPk azken hamarkadetan Berangon izan duen ordezkariari eusten saiatuko da, nahiz eta garai bateko indarra galdu duen, hainbatetan zinegotzi bi lortu izan dituzte eta. Alderdiak EAEn oraintxe duen krisiak ez dio, ez, orduko hartara itzultzen lagunduko.

VOX ERE BAI. Elkarrekin Podemosez gain, gaur egun udalean ordezkariarik ez duten beste hautagaitza bat aurkeztuko da Berangon. Zein eta Vox. Bat baino gehiago harritu da horretaz, izan ere Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten udaletan horixe izango da ultraeskuindarren zerrenda bakarra, eta eskualde osoan, Berangon ez ezik, hiru udal handietan baino (Erandio, Getxo, Leioa) ez baitira aurkeztuko. Zelangura, ez du ematen haien parte-hartzea sinbolikotik harago joango denik, apirilaren 28an izandako igoera, 2015eko emaitzagaz konparatuta ikusgarria izanda ere (boto bakarria orduko hartan; 108 oraingoan), ez baita nahikoa Voxek zeresanik izateko Berangoko udal-politikan.

HIRIGINTZA, EZTABAIDAGAI NAGUSIETAKOA. Anabel Landa alkate den sasoian asko handitu da herria, eta joera horri eusteko asmoa du agintean dagoen alderdiak. Etxebizitza-kopurua handitzeak aldaketa nabarmenak ekarri ditu ezinbestean, eta aldaketari eman beharko litzaiokeen noranzkoa izan daiteke indar politikoen arteko desadostasun-gune nagusietakoa datoren legegintzaldian.


EAJk Landaren ahotik iragarri du zein izango den bere politika. Haren hautagaitza zabaldu zenean, mezu argia eman zuen alkategaiak: «Ilusio handia daukat Berango garatzen eta hobetzen jarraitzeko aukera izango dudalako, hau da, azken urteetan egindakoak osatzeko proiektu berriak gauzatu ahal izango ditudalako». Inork gutxi egiten du zalantza esaldi horretan agertutako helburua lortu ahal izateko derrigorrezko baldintza, hau da, maiatzaren 26an hauteskundeak irabaztea, arazo handirik gabe beteko duela Landak.

EH Bilduren alkategai David Martinek datozen lau urteetarako dituen lehentasunen podiumaren goiko aldean ere, hirigintza eta azpiegiturak daude. HAPo berria herriaren «hirigintza-eredua aldatzeko» baliatu beharra dagoela uste du Martinek: «Azken urtetan gure herria txikitu dute etxebizitza libreak eraikitzeak, megapark bat egiteko... Espekulazioa eta lo egiteko herri bat dauzkagu, komertziorik gabe». Hori aldatu gura EH Bilduk, Sabino Arana ez beste auzoetan ekipamenduak sortzeaz batera.

Ildo horretatik, alokairuzko udal-etxebizitzak sustatu gura ditu Elkarrekin Podemosek, eta HAPo erabili mugikortasun jasangarriagoa lortzeko. Gainera, udal-politikan herritarrek parte hartzeko tresnak hobetzeko lan egin gura dute.

Asmo hori agertu du PPK ere: herritarrek hurbiltasunez artatzeko beharra azpimarratu dute euren hautagaiaren aurkezpenean, eta hirigintza-arloaz ez ezik, segurtasunaz kezka agertuz zuten. PSE-EEK, berriz, eskualdeko beste udaletan zabalduko mezu bera gogorarazi du: bere kideek kudeaketan eta gobernuan daukaten eskarmentua azpimarratu, eta herritarren eskariak zuzenean entzun eta horiei erantzuna emateko lan egitearen garrantzia nabarmendu dute sozialistek. ◀

2015eko emaitzak



Gorliz

Alderdien arteko lankidetzagaz segitzeko gogoia dute denek

Gorlizko Udalean dauden hiru indar politikoen arteko elkarlan arrakastatsua izan da amaitzear dagoen legegintzaldiaren ezaugarri nagusia, eta nork daki, datorrenerako bidea ere horrexek markatuko ote duen. Ez du ematen, bestalde, udalean hiru horiez bestelako indarrik sartuko denik.

UNAI BREA ►

Berezitasun bat dauka Gorlizko udal-politikak, eskualdeko besteakaz alderatuta: alderdi denek dute ardura bat gobernu-lanetan, eta erabaki garrantzitsuetarako gutxienez hiru alderdietako bik egon behar dute ados. Alkatetza EAJk izanda ere, «denen artean gobernatu dugula esan daiteke», adierazi digu Gabi de la Maza Euskara zinegotziak; «eztabaidak egon dira noski, baina ez da talka handirik gertatu, eta esperientzia oso positibotzat dugu, halaxe esan izan du alkateak ere».

EH Bilduren zerrendan joanda aukeratu zuten De la Maza orain dela lau urte, eta oraingoan ere aurkeztuko da, hautagaitzako hirugarren lekuan. 2015eko emaitzak errepikatuta udalera bueltatuko litzateke, hiru zinegotzi eskuratu baitzituen EH Bilduk. Sei ditu EAJk, eta lau GIG (Grupo Independiente de Gorliz) hautagaitzak.


Momentuz behintzat bueltatuko ez dena gaur egungo alkatea da, Arantza Etxebarria, oraingoan ez baitago EAJren zerrendan. Erantzukizun hori hartu duena Nagore Utxupi da, «betidaniko gorliztarra», eta gaur egun udalean kargurik ez duena. Baina hori ez da berrikuntza bakarra, ez horixe: jeltzaleek dituzten sei zinegotzietatik bat baino ez da ageri maiatzaren 26rako aurkeztu duten hautagaitzan.

TALDE INDEPENDENTE SENDOA. GIGeko independenteek ibilbide luzea dute herrian. 40 urte daroztate funtzionatzen, eta 1983tik, aldiro-aldiro, «zilarrezko domina» lortu izan dute udal-hauteskundeetan, EAJren atzetik beti ere. Baina denborak ez du barkatzen, eta antza, aurten kolokan egon da haien hautagaitza, beterranoen nekearen eraginez. Azkenik, jende gaztea erakartzea eta zerrenda osatzea lortu dute, izen berriz betea. Oraingo zinegotzietatik Idoia Urrutia (gaur egun Turismo zinegotzia) da berriro aurkeztuko den bakarra, bosgarren lekuan, alegia, hautatua izateko aukeraren muga-mugan. Ez litzateke izango GIGek bost ordezkari eskuratuko litzuzkeen lehenengo aldia, bestalde. Zerrendaburuari dagokionez, independenteek Iban Perez aurkeztu dute alkate izateko. Bitxikeria modura, esan beharra dago zerrendako azkena, Juan Mari Alonso, lehenengo udal-hauteskundeetan ere izan zela hautagai.

Berrikuntza gutxiago dago EH Bildun, udaleko hirugarren indarrean. Gorago aipatu dugun Gabi de la Mazaz gain, beste zinegotzi bat dago 2019rako zerrendan: Jose Antonio Martinez. Hura da koalizioak aurkeztutako alkategaia, izan ere.

ESTATUKO ALDERDI HANDIEK AUKERA GUTXI. Beste zerrenda bi baino ez dute aukeran izango maiatzaren 26an botoa ematera doazen gorliztarrek: PSE-EE eta PP. Sozialisten kasuan,

Alkategaia Gorlizen



OHARRA: Gaur egun Udalean ordezkartza duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

herrian tradizio gutxiko alderdia direla esan beharra dago: 1991tik behintzat ez dute ordezkari izan. Hala ere, oraingoan gauza bi alde dituzte: egin berri diren hauteskunde orokorretan izandako gorakadaxoa (mota horretako bozketetan boto «estatala» beti puzten dela kontuan edukita, noski), eta aspaldiko partez, aurkeztu duten alkategaia gorliztarra dela. Bestalde, PSE-EErentzat arerio handienetakoa izan litekeen Elkarrekin Podemosek ez du zerrendarik osatu Gorlizen. Nahikoa ote udalean sartzeko?

PPk emaitza hobeak lortu izan ditu PSE-EEK baino (ez ordea joan den apirilaren 28an, oso azpitik geratu zen eta), baina ez du zinegotzirik 2011tik. Orain dela lau urteko hauteskundeetan botoen % 3 baino gutxiago lortu zuten, eta bilakaerak bide beretik segituko duela dirudi.

Azkenik, 2015eko hautagaitza bi ez dira 2019an aurkeztuko. Batak, Vecinos por Gorliz izenekoak, botoen % 2,96 jaso zituen orduko hartan. Bestea, izenagatik harrigarria eman badezake ere, Sopela-Barrika Orain izan zen. Emaitza hobeak izan zituen (% 5,88), baina ez zinegotzirik lortzeko adinakoa. Hautagaitza independente bi horiek baino are boto gutxiago eskuratu zituzten PSEk eta PPK.


«HIRUKOAK» BADU ETORKIZUNIK? Esan bezala, bai EAJk bai EH Bilduk uste dute azken legegintzaldian hiru alderdien artean izandako lankidetzak onuragarria izan dela herriarentzat. Iritzi berekoak dira GIGeko kideak, zerrendan ordezkartuta dagoen «odol berria» barne. «Modu horretan funtzionatuz gauza gehiago lortzen da herriarentzat», diosku Idoia Urrutiak, independenteen izenean HIRUKAgaz berba egin duen hautagaiak.

Horrez gainera, datorren legegintzaldian GIGek landu gura dituen arloen berri eman digu Urrutiak. Garrantzitsuenetakoa bat parte-hartzea da: «Erdigunekoak ez diren auzoei garrantzia eman behar die Udalak, eurengana hurbildu, baita herriko elkarte denengana ere; horri lotuta, herritar guztiek herriko politikan parte ahal izateko tresnak areagotu egin behar ditugu». Herriko ekipamenduak hobetzea eta berriak sortzea ere GIGen «dekalogoan» dago, Urrutiaren esanetan. Besteak beste, saiatu egingo dira umeak modu autonomoagoan ikastetxeetara joan ahal izateko azpiegiturak gara daitezen, «Txikibide» modukoak, alegia.

Nagore Utxupia EAJko alkategaiarentzat ere lehentasunezkoa da «udal-aurrekontuak osatzeko garaian gorliztarren parte-hartzea lortzea», apirilean *Deia* egunkariari emandako elkarrizketan adierazi zuenez. Azpiegituren alorrean, auditorio bat eraikitzea Gorlizentzat premiazko beharrezana dela uste du Utxupiak; «herrikoentzat zein kanpotik datozenentzat kultur ekimenak antolatzeak aukera emango digu, bertoko elkarteek erabili ahal izatea lehenetsiz beti ere». Behar bezalako gazteleku bat ere gura luke Utxupiak, inguruko beste udal batzuetan dauden ildo beretik.

EH Bilduk eta GIGek etorkizunerako dituzten lehentasunezko helburuetan ere erabilera askoko kultur ekipamendu bat dago, eskaintza berritzeko ez ezik gaur egun sakabanatuta deun zerbitzu asko bateratzeko, liburutegia esaterako. Modu berean, etxebizitza publikoaren alokairua sustatuko duten politikak martxan ipini gura ditu koalizio abertzaleak, hala nola HAPO berrian lurzoru-kontsumoa murriztu, udalaren «hazkunde naturalari» egokitzeak. Parte-hartzeari dagokionez, Udaleko batzordeak irekiak izan daitezen proposatuko dute. ◀

2015eko emaitzak



Urduliz


Jabier Bilbao, hirugarrenez

Hiru alderdi daude Urdulizko Udalean, eta horietako bat, Denok Batera, ez da maiatzaren 26rako aurkeztu; erreleboa Elkarrekin Podemosek hartuko diola esan liteke. EAJ gehiengo absolutuari eusten ahaleginduko da.

TESTUA: UNAI BREA ►

Nagusitasun handiz irabazi ohi ditu EAJk hauteskundeak Urdulizen. Udal-hauteskundeei dagokienez, gehiengo absolutua lortu dute 2003, 2007 eta 2015ean (2011n, ezker abertzalea legezatu eta gutxira, Bildu sortu berriak jeltzaleen zinegotzi-kopuru bera eskuratu zuen). Emaizta arrakastatsua errepikatu guran, Javier Bilbao Lopategi buru duen zerrenda aurkeztu du EAJk. Irabaziz gero, hirugarren agintaldia izango da berarentzat. Eta ez da izango errepikatuko duen alderdiko kide bakarra; gaur egungo zinegotzi ugariren izenak ageri dira 2019ko hautagaitzan, izan ere.

Udaleko bigarren indarra da EH Bildu, alkategai modura aurpegi berria aurkeztu duena: Ibai Baldelana gaztea. Haregaz batera, «beterano» batzuk ere izango dira zerrendan. Hauteskunde orokorretan hirugarren egin du koalizio abertzaleak, Unidas Podemosen atzetik baina ia boto-kopuru beragaz. Udala aukeratzeko bozketak beste errota bateko ura dira, noski. 2015ean Denok Batera (DB) aurkeztu zen, baita zinegotzi bat lortu ere.

Alkategaiak Urdulizen**2015eko emaitzak**

Hiru herritan (Berango, Sopela eta Urduliz) sortu zen DB, besteak beste Podemosek hurbileko jendeak bultzatuta baina modu independentean. Oraingoan ez dira Urdulizen aurkeztuko, baina bai Elkarrekin Podemos, eta pentsatzekoa da neurri handian bata bestearen oinordekoa izan daitekeela. DBren zinegotzia, izan ere, bigarrena da Elkarrekin Podemoseko zerrendan, Veronica Garcia alkategaiaren ondotik.

GARAPEN-EREDUA EZTABAIDAGAI. Eskualdeko beste herri batzuetan jazotzen den legez, azken urteotan handitzen dabil Urduliz, eta hazkunde horri lotutako politikak zeresana izango du hauteskunde aurreko eztabaidetan, hautagaiek honezkero agertutako asmoetatik ondorioztatu daitekeenez. EAJren aldetik, Javier Bilbaok alkategaiak azken legegintzaldi bietan egindako lana defendatzen du, trenbidea lur azpira eroan izana nabarmenduz, eta herrian egindako hainbat azpiegituraren eta eraikuntzaren balioa azpimarratuz. «Urdulizek garatzen jarraituko du, eta etorkizunean egongo diren beharrianak kontua hartuko dira», iragarri du Bilbaok.

«Gure apustua peatonalizazioan aurrerapausoak ematea da, aldi berean bizilagunei autoa aparkatzeko aukera bermatuz», dio EH Bilduko Ibai Baldelanak. Urdulizi herri-izaera emango dioten elementu urbanistikoen falta salatzen du Baldelanak. Elkarrekin Podemoseko Veronica Garcíaren ustez, berriz, lotarako hiri bihurtzen dabil Urduliz, eta horri aurka egiteko politikak eta aurrekontuak sustatuko dituela adierazi du. ◀

Barrika

Herri-antolamendua gogoan

EAJk, EH Bilduk eta indar independente bik osatzen dute Barrikako Udala. Laurak aurkeztuko dira berriro, baita azken zortzi urteetan kanpo egon diren PSE eta PP ere. Itxuraz, karguari eutsiko dio gaurko alkateak.

TESTUA: UNAI BREA ►

Barrika da jardunean dagoen alkatea berriro ere zerrendaburu aurkeztuko den Uribe Kostako lau herrietako bat. Bertako EAJren Uri Batzarrak iazko ekainean aukeratu zuen, bai aho batez aukeratu ere, 2015etik aginte-makila duen Roberto Muñoz, datorren maiatzaren 26ko hauteskundeetan alkategai izateko. Honenbestez, Muñozek karguan gutxienez beste lau urtez segituko duela dirudi, batez ere azken hauteskunde orokorren emaitzari begiratzen badiogu, botoen %40 eroan baitituzte jeltzaleek.

Komeni da, baina, apirilaren 28ko datua erabateko erreferentziatzat ez hartzea, udal-hauteskundeetan talde independenteek ere zeresana baitute. Barrikan bi aurkeztuko dira, eta biek ere zinegotzi bana daukate gaur egun. Horietako bat iBarrika da, azken agintaldian Juan Jose Ezpeleta alkate ohia izan duena ordezkari nagusi. 2011ko hauteskundeetan, euren estreinaldian, indarrez sartu ziren udalbatzan, zinegotzi bi lortuta, nahiz eta batek taldea utzi eta adskribatu gabe egin zuen agintaldia. Orain, zinegotziari eusteko asmoa dute gutxienez, zerrendaburu Josemari Elorriaga aurkeztuta.

Alkategaiak Barrikan**2015eko emaitzak**

Beste talde independentea Orain da. 2015ean aurkeztu ziren bai Barrikan bai Sopelan, Podemosek zelanbait babestutako udal-hautagaitzen olatuaren barruan, eta bietan lortu zuten ordezkariak. Oraingoan, ordea, Barrikan baino ez dute eratu hautagaitza, zinegotzi modura ibilbide luzea duen Heri Lago-Lekue zerrendaburu dutela.

Bigarren indarra izan ohi den EH Bilduk, bere aldetik, berriutako zerrenda aurkeztu du, gaur egungo hiru zinegotzietatik bakar bat ere ez baita egongo datorren agintaldian. Alkategai izateko Miren Tubet aukeratu du 2015ean EAJtik nahikoa hurbil geratu zen indar abertzaleak. PSE-EEK eta PPk ere hautagaitzak dituzte, baina bata zein bestea udaletxetik kanpo daude 2011tik, eta zail dute berriro sartzea, popularrek batez ere.

HERRIARI BIZIA EMAN. «Orain dela hogeitazero gauza berak eskatzen gabilta», diosku Josemari Elorriaga iBarrikako alkategaiak. Haren esanetan, azken hamarkadetan herriak izandako garapen-ereduak eragin du bertan bizitzeko diru askotxo eduki behar izatea, eta herriko jende askok beste leku batzuetara joan behar izatea. «Beste etxebizitza-eredu batzuk sustatu gura ditugu», azaldu du Elorriagak.

Herriko taldeek erabiltzeko moduko azpiegituren gainera izango da iBarrikak udalean bultzatuko duen beste eztabaidagai bat. Zentzu horretan, emakumeen elkarteari lokal bat uzteko asmoa agertu du Roberto Muñoz EAJren hautagaia. Garraioari dagokionez, «auzotaxia bultzatu beharra» azpimarratu du Muñozek, «autobus-zerbitzuaren maiztasuna handitzeko eskatzen jarraituko dugun arren». ◀

Plentzia

Aro berriak zer ekarriko du?

Independenteek ez aurkezteko hartutako erabakia izan da aurre-kanpainako albiste nagusia Plentzian. Orain arte lau urte gobernu-osaketan giltzarri izandakoaren hutsunea noren mesederako izango ote da?


TESTUA: UNAI BREA ►

Zalantza barik, eta askok aurreikusi arren, arrazoi ekonomikoak direla eta Plentziako Independenteen taldea ez aurkeztea izango da hiribilduan 2019ko udal-hauteskundeen emaitza baldintzatuko duen faktore nagusietakoa, nagusia ez bada. Talde horrek eta EH Bilduk elkarri emandako babesak ahalbidetu du amaitzear dagoen agintaldian, baita aurrekoan ere, EAJk alkatetzarik ez eskuratzeak, zerrenda bozkatuena izan arren.

Hogei urtez Plentziako politikaren parte garrantzitsua izan dena hauteskundeetatik kanpo egoteak zelan eragingo die maiatzaren 26ko emaitzei. Batetik, ikusteko dago orain arte independenteentzat izandako botoen mugimenduak EAJri edo EH Bilduri egingo dien mesede handiena, bietako bati eginez gero behintzat, eta bestetik, bi horiez gain udaletxean beste in-darren bat sartzeko atea zabalduko ote den.

EH Bildurena eta EAJrenagaz batera, PP eta PSE-EErenak izango dira hautagaitza bakarrak. Sozialistek, historikoki, oso

Alkategaiak Plentzian



EAJ
ELIXABETE
URIBARRI



EH BILDU
DAVID
CRESTELO

OHARRA: Gaur egun Udalean ordezkaritza duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

2015eko emaitzak



emaitza txarrak lortu izan dituzte Plentzian; popularrek, al-diz, ez dute ordezkaritza edukiko 2011tik, baina bai 1999tik 2011ra, ezker abertzalea legez kanpo egonda eta aurretik ere bai. Berriki izandako beherakadak ez du aditzera ematen, or-dea, garai haietako emaitzak errepikatzen moduan daudenik. Izan ere, PSE-EEtik ondo behera geratu dira hauteskunde oro-korretan, botoen %4 bakarrik eskuratuta, eta horrez gainera gauza jakina da udal-hauteskundeetan, herri txikietan, kax-karragoak izaten direla espainiar alderdi handien emaitzak.

Gauzak horrela, ez da erraza igartzen azken hamarkadetan Uribe Kostako herri «atipikoena» izan den honetan zer osaketa izango duen Udalak datorren legegintzaldian.

ALKATEGAI BERA. EH Bildurentzat, etxebizitzarena da Plentziak daukan arazorik larrienetako bat, eta beren-beregi horri aurre egiteko zinegotzigoa sortzeko helburua du. «Alokairu zein eroste-prezio altuen ondorioz herritik alde egin behar dute gazteek; herri udatiarra izatea pairatzen dugu». Hirigintzaren alorrean oinezkoen lehentasuna ematea ere aipatzen dute egitekoen artean. Zerrendaburu modura gaur egungo alkate David Crestelo aurkeztu du, osterera ere, EH Bilduk.

EAJk, berriz, «turismo jasangarri, iraunkor eta kalitatezkoa» du helburu Plentzian, bere alkategai Elixabete Uribarri dioenez. 2015ean ere hura izan zen jeltzaleen zerrendaburu, eta zinegotzi daroatza zortzi urte. Herriko gune denetan «iris-garritasuna hobetzea» da haren beste asmoetako bat. ◀

Lemoiz

Ezusterik bako «bipartidismoa»

Herri txikia da Lemoiz, lasaia, eta hauteskunde-kontuetan gorabehera handirik bakoa. Azken agintaldietan, EAJren eta EH Bilduren artean banatu dituzte zinegotzi denak. Ez dirudi kontua aldatu egingo denik.


TESTUA: UNAI BREA ►

Bederatzi zinegotzi dauzka Lemoizko udalerriak 2011tik (horren aurretik zazpi zituen), eta historikoki EAJren eta ezker abertzalearen artean banatu izan dituzte jesarleku denak, bigarrena legez kanpo egon zen sasoian izan ezik, jeltzaleen gehiengo absolutuagaz. Izan ere, Lemoiz da Uribe Kostan EAJk zinegotzien erdia baino gehiago daukan herri bietako bat, Urdulizegaz batera. Amaitzear dagoen agintaldian, sei eduki ditu Sabin Etxeko alderdiak, eta hiru EH Bilduk.

Oraindino alkatea den Unai Andraza ez da berriro aurkeztuko, eta honenbestez, itxura denen arabera, EAJren zerrendaburu Iñaki Alonso izango da aginte-makila jasoko duena. Aurretik Udalean kargurik izan bakoa da Alonso; izan ere, gaur egun EAJk dituen sei zinegotzietatik hiru baino ez doaz maiatzaren 26rako zerrendan, eta hirurek ere aukera handia daukate berriro jesarlekua lortzeko, zerrendako bigarrena, hirugarrena eta laugarrena baitira, hurrenez hurren.

EH Bilduk Jesus Mari Arizmendi aurkeztuko du alkategai, hori ere gaur egun Udaltzatik kanpo. Koalizio abertzaleak

Alkategaiak Lemoizen



EAJ
IÑAKI
ALONSO



EH BILDU
JESUS MARI
ARIZMENDI

OHARRA: Gaur egun Udalean ordezkaritza duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

2015eko emaitzak



dituen hiru zinegotzietatik bakarrak du berriro hautatu izateko aukera, emaitzetan egundoko hobekuntza lortu ezean.

Lemoizen aurkeztuko diren beste alderdi biak, ohi bezala, PSE-EE eta PP dira, baina haien boto-uzta oso txikia izaten da. Mende honetan behintzat ez dute ordezkaritza lortu, eta egin berri diren hauteskunde orokorretan lortu dituzten emaitza eskasek ez dute iradokitzen oraingo honetan ere udal-txean sartzeko aukera izango dutenik. Ez die laguntzen, noski, zerrendetan ageri diren izenak ezezagunak izatea, denek elkar ezagutzen duten herri txikian.

Hala ere, ikusteko dago apirilaren 28an Podemosentzat izan diren 121 botoak (%15,4) zelan banatuko diren udalera-ko hauteskundeetan. Konparazio baterako, 387 lortu ditu EAJk (%49,3), eta 212 EH Bildurentzat (%27,0).

HAUTAGAIEN ASMOAK. Iñaki Alonso EAJren alkategaiak 39 urte ditu eta horrelakoetan eskarmentu txikia. «Urtea hasi zenean ez nukeen sekula pentsatuko egoera honetan ikusiko nuenik neure burua», adierazi du. Alonsok oraindino jardunean dagoen gobernu-taldeak egindako lana goraiatu du, es-pero zitekeenez, eta adierazi du Urizarko eskola publikoa handitzea dela bere nahietako bat, alkatetzara ailegatuta.

EH Bilduri dagokionez, Jesus Mari Arizmendik azpimarratu du udaletxe barruan zinegotzien arteko lan-moldeak aldatzea dela koalizioaren helburu nagusietakoa, «agintea vs oposizioa blokeak gaindituta». Horren ordez, elkarlana eta erabakiak de-nen artean adostuz hartzea sustatu gura du EH Bilduk, hala nola herritarren parte-hartzerako bideak zabaltzea. ◀

Iritzia **Branka****Oporrak bakean****JANIRE ENZUNZA LANDA** Filologoa eta irakaslea

Apirileko oporraldian lortu dot eguneroko erritmoa lasaitzea, lo-orduak luzatzea, loaldia bera probetxugarria izatea, hamaika kontu aurrera eroateko tarteak eukitea, etab.

Costa Rica-k beharretik kanpo behar dodazan opari asko emoten deustez: lasaitasuna, paraje parebakoa... Zorritzarrez, oporraldia eta aro ona batzen diranean, kanpotar zein udatiarrek hasarraldiren bat edo beste eragiten deuste. Hiru hamarkadatik gora daroadaz inguru berean biziten, eta oraindino ulergatx egiten jat hemen bizi ez diran askok daukien jokaerea: etxeko atetik zarataka berba egitea eskaileretatik behera dagoan senideari, edozein ate danbatekoa emonda itxitea, zarataka berba egitea telefonoz leihoan edo terrazan jarrita, karraderan sartzea supermerkatuan zabaltzeaz batera, etab. Ulergatxa egiten jat, ganerakook, normalean, ez dogulako holan jokutzen. Errespetaten dot gure herriak opor-sasoian jendetzea hartzea, baina ez dot uste horrek alkarbizitza apurtu behar dauanik.

Alkarbizitza egon daiten, neurri indartsu bat hartu eban igaz Gorlizko Udalak: ibilgailuak araupean aparkateko zerbitzua. Beste kontu bategatik udaletxera hurbildu behar izan neban neurria indarrean sartu eta egun gitxira, eta zur eta lur gelditu nintzan, ilaran nengoala, hainbaten kexak entzunda: Arartekoarengana joango zala bidebakoa zalakoan, udako etxean egozanen artean guztira sei auto eukezala eta ez zala bidezkoa guztiak aparkateko txartela ordaindu behar izatea, herrian bizi baina herrian erroldatuta ez egozanek ordaindu beharra, igaz Bilbon abuztuan ez egotea eta ia zer zala-ta udan Gorlizen bai, etab.

Argi daukat herrikoen eskubideak aurretik ipini behar dirala; nik, neure herria ez dan beste batera noanean, onartu eta errespetaten dodazan lez.

Itxasoan ura ta zerua; eta konforme ez dana, hondura.

Iritzia **Begire nago begire****Erdaldunen kontua ere bada****JOSU ESNAOLA ARANGUREN** Helduen euskara-irakaslea

Joan zaigu apirila eta horrekin batera, etorri bezalaxe, baita Korrika ere. Inoizko jendetsuena antolatzaileen arabera: inoizko erdaldunena lagun batzuen irudiz, baina Korrika pasatzen den bakoitzean gauza bera esaten ez ote duten nago. Beharbada biak ala biak lotuta egongo dira.

Gure herritik ere pasatu da eta nahiz eta halako lantzean behineko gandar-erakustaldietan baino gehiago sinistu inurri-lan ikusezinean, nik ere parte hartu nuen, egun gutxi batzuetan bada ere, ikusgarri jartzen duelako euskara erdaldunen begien aurrean. Egunkarietako hamalagarren orrialdean galdutako berri laburra izatetik jende guztiak begiz joko duen lehen orrialdeko izenburu nagusi izatera eramaten duelako, nahiz eta kasurik gehienetan emandako trataera azalekoa izan.

Bai, euskarak erdaldunen bizitzetan ere lekutxo bat izango zuen egun edo ordu gutxi batzuetan, ezin izango zuten jokatu bizi diren herrian euskararik izango ez balitz bezala, euskaldunok existituko ez bagina bezala. Batzuek petoa jarri eta korrika egingo zuten; baina gehienek lasterketa bati bezala begiratuko zioten, beraiekin zerikusirik ez duen zer baiten aurrean baileuden, segundo bakar bat ere galdu barik pentsatzen zer-nolako eragina daukan euren erdal izateak, nola eragiten duten inguruko hizkuntz ohituretan.

Baina bai, horrela da, beste eremuetan gertatzen den bezalaxe. Gizonezko askok feminismoa beraiekin zerikusirik ez daukan emakumeen kontua dela edota herritar askok hezkuntza irakasle eta gurasoei dagokien kontua baino ez dela uste duten bezalaxe. Gizonezkoen inplikazioa, ordea, ezinbestekoa izango da berdintasunean oinarritutako jendarte sortzeko, baita komunitate osoak heziketan parte hartzea gizarte integratzaile eta sanoagoa osatzeko ere. Erdaldunen inplikazioa ere nahitaezkoa izango da jendarte euskalduna eraikitzeko, baina klika hori ezin dugu egin euskaldunok, beraiek egin beharko dute. Ni laguntzeko prest naukate.



**Contamos contigo.
HERRIAK ETA HIRIAK
bizitzaz bete!**



Puntua eta kontrapuntua **Etxegabetasuna Uribe Kostan**

Etxegabe



*Bizileku bat ez da
irteten debalde,
hemen ere dena da
dirudunen alde.
Egiazue zuen
buruari galde,
zaretenok etxe bat,
bi, hiruren jabe:
Uribe Kostan zenbat
dauden etxe gabe*

**IMANOL
URIA
ALBIZURI**
Getxo



*Dirua da etxegabetze
batzuen iturburu,
baina munduan badira
egun nahiko gudu.
Ihesa bihurtzen da
gerraren goiburu;
etxea, maitasuna,
bakea helburu.
Bizitza erdigunean
jarri behar dugu!*

**NAROA
TORRALBA
RODRIGUEZ**
Larrabasterra



**Zurekin
BIZKAIA
gara**

Bea Ilardia Olangua
Bizkaiko Ahaldu Nagusirako hautagaia

Iratxe Arriola Alzola
Busturia-Uribe barrutiko zerrendaburua

ehbildu

Getxoko Andra Mari San Isidroko jaiak

Getxoko San Isidro jaiak, herritar

Urtarrilean ekin zion Andra Mariko Jai Batzordeak 2019ko San Isidroko festak prestatzeari. Laupabost kide besterik ez dira taldean, eta eurek bakarrik kudeatu behar izaten dute jaien prestaketa. Olaiz Artetxe (Getxo 1982) Jai Batzordeko kideak adierazi digu deiak eta bilerak prestatzen dituztela jende berria erakartzeko asmoz, baina alferrik: «Gazteak ez dira hurbiltzen, eta guk urte batzuk ditugu dagoeneko».

TESTUA: **KERMAN SANTIAGO ALKORTA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Itxas Argia Taldeagaz elkarlanean prestatzen ditu urtero Getxoko Andra Mariko Jai Batzordeak San Isidroko Jaiak. Aurtan, dantza taldeak «parte-hartze gutxi» izan duela esan digu Artetxek. Hala ere, adin guztietako herritarrek biltzeko moduko egitarau osatua prestatu dute. «Saiatu gara parte-hartzerik handiena lortzen; umeentzat, gazteentzat eta helduentzat eginiko programa da aurtengoa», diosku. Hamalau eta hamabost urte bitarteko gazteak erakartzeko helburuagaz cars eta paintball-a egingo dute, besteak beste. Gainera, hamasei urtetik gorako gazteei deia egin die Jai Batzordeak: «Gaezan hurbiltzen dira jaietara soilik, eta egunean zehar ez dira etortzen. Nahiko genuke goizean eta arratsaldean ere gazteen parte-hartzea sumatzea».

Herri bazkariko «auzo-giroa» aipatu digu Artetxek, bertan hainbat adineko herritarrek biltzen direla esan digu: «Jende oso nagusia etortzen da herri bazkarira, auzokideek antolatu eta mugiarazten baitute jendea. Oso gauza polita da, auzoko nagusiak gazteekin elkartzen dira eta bazkarian». Jaien helburua adin guztietako jendea hurbiltzea eta parte-hartzea eguneroko sustatzea dela esan digu.

UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK, URRIAK. 2019an Getxoko Udalak jai batzorde guztien artean banatu duen diru-kopurua 227.920 eurokoa da. Algorta eta Romoko inauteriak antolatu ez ezik, Andra Mari, San Juan, Karmen, Santa Ana, Nazioarteko Paella Txapelketa, Saninazio, Romo, Portu Zaharra, Ama Mesede eta San Martingo jaiak prestatu beharko dituzte diru horregaz: «Karparen alokairuarekin bakarrik diru-laguntza joaten zaigu, haren prezioa oso altua baita», diosku Artetxek. Bestalde, adierazi du Ereagako maiatzaren 4ko kontzertuetan «dirutza» gastatu duela Udalak: «Amorratzen gaitu jai herrikoietan kontzertu hain ezagunak ez izateak». ◀

Parte-hartzea

«Saiatu gara parte-hartzerik handiena lortzen; umeentzat, gazteentzat eta helduentzat eginiko programa da aurtengoa»

Diru-laguntzak

«Karparen alokairuarekin bakarrik ematen diguten diru-laguntza gehiena joaten zaigu, haren prezioa oso altua baita»



ren parte-hartzea jomugan



Badatoz San Isidroko jaiak!



Getxo

Maiatzak 15, eguaztena

- 17:00 Txupinazoa Geroako ikasleen eskutik.
- 17:30 Ume eta helduentzako jolasak Parkean Olgetan Sendiren eskutik.
- 17:30 Txokolatada Itxas Argiaren eskutik.
- 18:00 Agurrako buruhandiak.

Maiatzak 17, barikua

- 17:30 Umeentzako jolasak: Kars+musika (6-15 urte bitartean).
- 17:30 Graffitiak.
- 18:00 Umeentzako antzerkia.
- 18:00 Mus-txapelketa.
- 21:00 Kontzertuak aparkalekuan: The Riff Truckers, Screamers & Sinners, Schizophrenic Spacers eta Eskean Kristo.

Maiatzak 18, zapatua

- 11:00 Umeentzako tailerrak, Zumba, Taloak, Igel eta Txapela jaurtiketa lehiaketa...
- 12:00 Puzgarriak.
- 13:00 Fanfarrea Andres Isasi Musikaldia Martxing Band eskutik.
- 15:00 Herri-bazkaria Auzokideen eskutik.
- 18:00 Umeentzako ginkana (5-15urte bitartean).
- 19:00 Elektrotxaranga auzoan zehar.
- 22:00 Kontzertuak aparkalekuan: Lurdark, Perfect World eta Urrats erromeria.

Maiatzak 19, domeka

- 10:00 Bertoko ekoizleen azoka UK-ko Agroasanbladaren eskutik eskutik.
- 11:00 Getxoko Euskal Pilota taldeko umeen partiduak, Kiroldegian.
- 11:30 Etor zaitez kirol egokitua ezagutzera! Sendi eta Haszten elkarteen eskutik.
- 12:30 Areatxu fanfarrea.
- 13:30 Kontzertua aparkalekuan: Onddo beltzak.
- 16:30 Patinaje Show Getxoren festibala.
- 18:00 Umeentzako jolasak.

AZKAYO

eraikuntzak

1980TIK ERAIKUNTZAREN MUNDUAGAZ LOTUTA

Ilusinoz beteta egiten dogu behar gehien atsegin dogun horretan.

MAIURI FRUTA DENDA

☎ 994 301 465 *Elxera erosten dugu doan!*

SARRIKOBASO 39/PUERTO ORDUNA BALEA 48993 ALGORITA

Historiaren ganbara Jon Ormaza

Noiz bihurtu zen Algortako portua Portu Zahar?



Aurreko atalean Getxoren jatorriez egin nuen berba. Oraingo honetan, berriz, Algortako Portu Zaharraren historia gorabeheratsuaz idatziko dut. Hala, beraren sorkuntzaren kokapena eta mendeetan izandako garapena dira, besteak beste, ondorengo lerroetan azalduko ditudanak.

Getxo udalerriaren jatorriak zeintzuk diren ez dago argi, ezta elizateko portuarenak ere. Lehenengo aipamen zuzena XVI. mende hasierakoa da. Antza, 1501. urtean algortar batzuek ardoa porturatu nahi izan zuten, baina itsaso-komertzioa Portugaleteren eskumenean zegoen, eta horrek kontseiluak merkantzia enbargatzea ekarri zuen (Beascoechea, 1992).

Ez zen Getxorentzat garairik onena, Bilbok eta batez ere Portugaleteko baitzituzten itsaso-jardueretarako pribilegio eta eskumen gehienak. Honela adierazten du Beascoechea (1992): «Portugaleteko hiri-gutuneko testutik, bere pribilegioetatik, hiribildu izena eman dion eskumenetik eta, batez ere, antzinatasunetik, sortu ziren inguruko elizaldeekin gatazkak». Horrek Getxoko portuari hazkunde eta dedikazio-irtenbide urriak uzten zizkion: kalatu baxuko arrantza eta praktiko-lemanen formakuntza. Hala ere, etsipenetik urrun, bide judiziala erabili zuten hainbat alditan XVI. mendean, Portugaleteren pribilegioak kolokan ipini eta etekinak lortzea bilatzeko.

1560an, esaterako, gaur egungo Areeta eta Portugalete arteko hondar-barraren gaineko eskumena borrokatu zuten, ontzi frantses batek barran hondoa jo zuelako barnean legez kanpoko merkantziak zeramatzala. 1583an antzeko gatazka izan zen: ontzi batek jo zuen hondoa, eskumena nahi zuten ontzia salbatu eta lortutako etekina banatzeko. Azkenean, bi urte beranduago, Valladolideko *Chancilleria*-k eman zuen epaia. Honela dio Zabala (1990): «Bi urteko liskarren ondoren, erabaki zuten Portugaleteko errekarren zati baten gaineko eskumena zuela. Gainontzekoa Getxoren esku dago». Garaipen garrantzitsua izan zen, nahiz eta ez zuen ekonomi jardueran eragin handirik izan. Arrantzaleez gain, portua praktiko-lemanen sormen-lekua izan zen mendeetan zehar. Hala lortu zuten izen ona itsasadararak eta Abran ondo mugitzen ziren marinel getxoxtarrek. 1561ean hemeretzik lortu zuten pilotu-titulua, 1652rako 56k (Zabala, 1990), eta 1699rako 79k (Basurto, 1989).

Bibliografia

- Basurto, R. (1989): *Guecho: la evolución de los modos de vida de una anteiglesia de Vizcaya*. Harriluze, Getxo.
- Beascoechea, J. M. (1992): *Getxo: monografía histórico-artística*. Diputación de Bizkaia, Bilbo.
- Merino, J. B. (1970): *Apuntes para la historia de Guecho*. Bilbo, Junta de Cultura de Vizcaya.
- Zabala, C. M. (1990): *Historia de Guecho. Padres Trinitarios, Algorta (Bizkaia)*.

Portuari dagokionez, 1570eko epai batean Algortako kaia eraikitzeke agindua eta aurrekontua azaltzen dira. Beranduago, 1626. urtean, kai berri bat eraiki zuten, aurrekoaren berri-rik eman gabe; enborrez eta harriz indartutakoa zela suposatu daiteke. Portu berriak sortutako zorraz zerga bereziekin baretu ziren, barratik igarotzen ziren ontziek ordaindu beharrekoak, besteak beste (Basurto, 1989). Kai berri hori babeslekutzat izan zuten hainbat ontzik urteetan, Merinok (1970) adierazten duen bezala: «Portuak moila onak ditu, arrantzarako 17 ontzi hartzeko, eta marinelentzat 98 etxebizitza eraikitzeko».

1879an hego-ekialdeko inguruan euste-horma bat eta al-dapa baten eraikuntza atera ziren enkantera, 1.969 pezetaren truke. Hogei urte beranduago, defentsa-horma bat eta errepidea eraiki zituzten. Baina izenaren zergatia azaltzen duen eraikina, 1905. urtean egin zuten: kai berria. Begoñako galerien parean eraiki zuten, kontramoiatik hasita; 200 metroko portu berria (Arriluzekoa) sortu zuten. Ordutik aurrera, Algortako portuari Portu Zaharra deitzen zaio, berritik bereizteko. Azkenengo aldaketa nagusiak 1948 eta 1950 urteen bitartean burutu ziren (Zabala, 1990); zehazki, Usategira bidean defentsa-horma bat eta zuloan betegarria eraiki zituzten. Hala, gaur egun duen itxura hartu zuen portuak.

Betegarriaren gaineko berdegune berria hutsik egon zen 1970eko hamarkadara arte. Ordurako, Sociedad Mercantil Deportiva de Algorta delakoa sortuta zegoen, eta udaletxearekin konpromisoa hartu zuen urte batean berdegunea urbanizatu eta kirol-turismoko gunea eraikitzeke (Zabala, 1989). Proiektu horrek ez zuen luzaro iraun eta 1980ko hamarkadan, nonbait, krisialdian murgilduta, goitik behera bota eta berdegunera itzuli zen berriro ingurua. Gaur egun ematen zaizkion erabile-
rak denok ezagutzen ditugu (askotariko aisia, kirola eta festa, batik bat) baina auskalo hemendik eta 200 urtera etorkizuneko getxoxtarrek zer nolako Portu Zaharra irudikatzen duten eta zertarako erabiltzen duten. Ezin orain iragarri, ezta? ◀



Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Udaberriko kolore, usain, paisaia eta melodiak

Udaberriak ingurumenaren alderik atseginena erakusten digu, eta beragaz ekartzen ditu, behin eta berriro, argia eta beroa. Bizi-sentsazioak ernatu egiten dira Ama Lurraren edozein txokotan, eta zalapartaz ospatzen dute neguaren bizirauleek. Zikloa hastera doa berriz ere...

Garai honetan ez dugu buru hausten ibiltzeko beharrik ingurumenaz gozatzeko. Jarduerarik gomendagarrienetakoa izan daiteke, esaterako, zuhaitz baten azpian edo bide-ertzean jesarri eta hainbat hegaztik eskaintzen dizkiguten melodiak entzutea. Horretarako, egunsentia eta ilunabarra izaten dira momenturik onenak.

Gehien entzungo ditugun kantuak zozoarenak eta birigarroarenak dira, estrofa bakoitzaren aurretik nota berak errepikatzen ditu azken horrek. Eta soinu altu eta indartsu batek ezustean harrapatu eta bereziki harrituko gaitu. Zaila egingo zaigu, gainera, igorlea topatzea, izan ere hostoen koloreko txori txiki-txikia izango da zarataka diharduena: txepetxa. Zuhaitzetan bizitzea gustatzen zaio, eta narrasean egiten du hegaz.

Landazabala ere beteko da kantuz. Hala, borobilka airatzen den ihi-txoriaren etengabeko «dzip, dzip, dzip»-a nagusituko da beste guztien artean. Hortaz, asko dira udaberrian entzun ditzakegun melodia eta kantuak. Sastraken artetik txinboek abestuko dute, zuhaitzetatik, aldiz, paridoek. Zelaietatik gari-bardantzeen, kardantxorien eta benarriz nabarren ahaireak entzungo ditugu, eta hezeguneetatik lezkariak.

Txorien kantuek, gainera, garrantzi handia dute gure kulturaren, zenbait alditan igortzen duten soinuaren arabera ipintzen baitzaizkie hegaztiei izenak. Horren adibide garbia dira kukuak, etengabe errepikatzen duen «pe-pe-txin, pe-pe-txin» soinuagatik gure inguruan pepetxin izenagaz ezagutzen dugun kaskabeltza, eta «pi-txar-txar, pi-txar-txar» melodia kantatzen duen pitxartxar burubeltza.

BIKOTEKIDEA ERAKARTZEA HELBURU. Iskanbila horrek helburu argia du, noski: ugalketa. Dena dela, hegazti deigarri eta bizi-biziki izango dira, bereziki, gure udaberriko ibilaldietan lagunduko gaituztenak. Bestalde, eta modu isilago batean bada ere, badira urtaro berriko lore eta koloreen zain egoten diren beste hainbat eta hainbat talde, horien artean ornogabeak ere



Hegazti batzuen izena egiten duten soinuaren araberakoa da

Horren adibidea da kaskabeltza. Gure inguruan pepetxin izenagaz ezagutzen dugu, etengabe errepikatzen duen «pe-pe-txin» soinuagatik.

bai: tximeletak, kakarraldoak, tximitzak, armiarmak, erleak, euliak, mariburruntziak...

Beste animalia batzuek ornogabe-danbada hori aprobetxatuko dute elikatu ahal izateko, baita eguzkiak udaberrian ematen duen beroa ere, euren odola berotu eta metabolismoa aktibatzeke, negu osoa igarotzen baitute lotan. Narrastiez nabil berbetan, aldi berean miretsi eta gorrotatzen ditugun horiek. Haien artean daude muskerrak, sugandilak eta sugerak bat edo beste, gorbataduna, eskulapiorena edota larrasugea, adibidez. Hezegune eta ibaietan, aldiz, dortokak ikusi ahal izango ditugu harri edo enbor baten gainean eguzkia hartzen.

Aipatutako soinu zalaparta hori egun osoz luzatuko da garai honetan. Hala, urubiaren ulu bereziaz gain, mozoloak igortzen duen marruagaz gozatu ahal izango dugu udaberriko gauetan zehar, baita apo-hontzaren txistu erregularrakaz ere. Azken hori Afrikatik heldu da daborduko, gaueko beste hegazti in-tsektujale batek batera: zata. Estratetako espaloietan jarrita ikusi ahal izango dugu hura gauetan, lurak gordetzen duen beroa aprobetxatzen.

Igel eta apoak ere kantatzen egongo dira hezeguneetatik hurbil, eta kontu handiz ibili beharra dugu gauetan errepideetan ez harrapatzeke, bereziki euria egiten duenean, orduan egoten baitira aktiboen. Antzera gertatzen da kirikiñoakaz, horrelako gauak baliatzen dituzte eta, euren harrapakinen bila joateko: karakolak eta zizareak.

Udaberrian ez da gauza zaila izaten animalia jaioberriakaz topatzea: zapaburuak, oiloak edota hainbat ugaztunen kumeak, azeri eta orkatzenak esaterako. Dena den, eta nahiz eta babes barik daudela pentsa dezakegun, ez da gomendagarria horiek hartzea. Utz ditzakegu dauden tokian, edo bestela hurbileko zuhaitz edo zuhaixka baten ondoan. Gurasoak beti egoten dira haiengandik hurbil, babesteko edota elikatzeko. Zentzu horretan, lasai egon gaitezke, beraz, ez baitituzte kumeak bakarrik utziko. ◀





OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

«Diferente» eta «ezberdin» ez omen dira gauza bera



Erdaraz esanahi ezberdina hartzen du adjektiboak izenaren aurrean edo atzean jarrita, ondorioz, badira halako batzuk kalifikaziotik kuantifikaziora aldatzen direnak. Esaterako, ez dira gauza bera *un nuevo ataque* (beste eraso bat) edo *un ataque nuevo* (eraso berri bat: lehendik ez zegoena).

Erraz ikus liteke sarreran aipatu dugun adibidea ez dela kasu bakana, baina horrelakoak zenbat diren zaila da esaten. Gaur egun, oso ohikoa da euskaraz bi adiera horiek modu berean itzultzea, hau da, izenondoaren edo adjektiboaren berezko adierari eutsi gabe. Bide egokia da, beraz, ez ematea euskarazkoari erdarazko bereziak duen zentzua, oinarritzkoa baizik.

Askotan, baina, aurreko adibideetan ikusi dugun bezala, gaztelaniaz adjektiboa dena ez da euskaraz horrela izango, beste egitura edo joskera-molde bat beharko dugu horren orde. Adibidez: *unas simples llaves* esaldia euskaraz «giltza batzuk besterik ez» esanda adierazten dugu, hau da, gaztelaniako adjektiboa (*simple*) beste egitura batez ordezkatu dugu (besterik ez).

Atal honetan, halakoetatik hedatuen eta arazo gehien sortu dituzten bi erabilera aztertzen ahaleginduko gara.

BERRI. Adjektibo horrek arazoak sortzen ditu bereziki testuiguru narratiboetan: **Kolpe berri bat eman zion* edo **Korner berri bat Athleticentzat*. Aurretik aipatu bezala, gaztelaniaz ez du zentzu bera hartzen adjektiboa aurrean edo atzean jarrita. Eta hortik dator, hain zuzen ere, erabilera okerra. Izan ere, «*un golpe nuevo*» ez-ohikoa da erdaraz ere (non eta ez garen ari boxeolariren batek-edo asmatutako kolpe bati buruz, hots, orain artekoak ez bezalako batez); baina «*un nuevo golpe*» moldeak bestelako adiera bat hartzen du: kuantifikazioa.

Euskaraz (beste hainbat hizkuntzatan gertatzen den bezala) ez da egokia horrela ematea zentzu hori. «Berri» hitzak zahar hitzaren antonimoa izan behar du, betiko lez. Hortaz, **aukera berri bat eman dio* esan beharrean, egokiagoa da *beste aukera bat eman dio* esatea. Beste hauekin ere gauza bera gertatzen da: **tanto berri bat egin dute* (beste tanto bat egin dute) edo *euri berriak ekarriko ditu ekaitzak* (euri gehiago ekarriko du, edo ditu, ekaitzak).

Askotan, gaztelaniaz adjektiboa dena ez da euskaraz horrela izango, beste egitura edo joskera-molde bat beharko dugu horren orde. Adibidez, *unas simples llaves* esaldia euskaraz «giltza batzuk besterik besterik ez» esanda adierazten dugu, hau da, gaztelaniazko *simple* adjektiboa beste egitura batez ordezkatu dugu (besterik ez)

Kasuren batean zuzenak izan litezke biak. Esate baterako, saguari klik eginda, ariketa berria aterako zaizu edo saguari klik eginda, beste ariketa bat aterako zaizu. Biak onargarriak dira, baina, betiere, kontuan hartu beharra dugu «ariketa berria» esapideak «lehengoa ez bezalakoa» esan nahi duela, eta ez «beste bat».

DESBERDIN, EZBERDIN, DIFERENTE. Gaztelanitik datorkigunez gehienbat okerra, hartara joko dugu azalpena emateko. *Diferente* adjektiboaren (eta berdina gertatzen da haren sinonimoekin: *distinto*, *diverso*...) kokagunearen arabera, erabilera ezberdinak bereizten dira. Izenaren atzetik idazten denean, kokagune normala izaten du, eta euskaraz modu berean eman daiteke. *Son casas diferentes* = etxe desberdinak dira; *vivían en pueblos diferentes* = herri ezberdinetan bizi ziren. Horiexek dira, baina, horrela emateko bakarrik.

Gaztelaniaz kokagune berezia duenean izenondoak (izenaren aurretik), ezin da eman desberdin/ ezberdin erabilera euskaraz. Honelakoetan, esaterako: *diferentes casas*, *diversos autores*, *diferentes actividades*... Nola eman, orduan, halakoak? Bada, adjektibo ustela baztertu eta euskarazko kuantifikatzaile arrunt bat erabilita. Esaldiaren arabera ikusi beharko da zein aukeratu, izan ere, ez dago formula zehatzik ematerik, aukera bat baino gehiago egon baitaiteke. Adibidez: **Denda desberdinetan galdetzen hasi zen* → Zenbait dendatan/ Denda batzuetan/ Denda askotan... **...euskaraz bizitzeko soluziobide ezberdinak eskaintzen dizkizu* → ...hainbat irtenbide/soluziobide eskaintzen dizkizu. **Eduki ezberdinak egon daitezke: ariketak, datuak, grafikoak, etab.* → Askotarikoak izan daitezke edukiak: ariketak... **Iritzi ezberdinak daude* → Badira era guztietako iritziak. **Hitzek kategoria desberdinak izan ditzakete* → Hitzek kategoria bat baino gehiago izan dezakete. **Animalien eta landareen elikatze modu desberdinak* → Animalien eta landareen elikatze moduak. ◀

TXIBERRI

edantokia

Frontoi partikularra,
terraza estalia,
bokatak,
artisansu-garagardoak,
eramateko tortila osoak
eta askoz ere gehiago.



Gustora egoteko behar duzun guztia!

Aita Gotzon kalea, 4 • URDULIZ • 946.760.715



Gatz-ozpinetan Kotska Mandaluniz

Elikaduran, zer da mitoa eta zer errealitatea?

Zelako ziurtasunagaz esaten diren hainbat esaldi gogoangarri, horien gaineko zalantzarik izan ezin daitekeela dirudi. Bizitza-esparru guztietan gertatzen da hori, baina, kasu honetan, elikaduraz egingo dut berba, izan ere gauza asko sinetsi egiten ditugu, gure buruari ezer galdetu barik.

Jaki asko baztertu eta beste asko barneratu ditugu gure dietan, hainbat sineskeria okerren eraginez. Dena den, gaur egun dugun oinarri zientifikoari esker, osasunaren eta elikaduraren gaineko gero eta mito gehiago gezurtatzen ari dira. Agian batzuek logika apur bat zuten, baita zentzua ere aspaldi. Baina bada garaia, eta behin betiko, horiek gure bizitzetatik baztertzeke.

EZ DEZAGUN TXERRIA HAINBESTE EGOSI. Trikinosia txarto egositako haragia jateagatik hartu dezakegun gaixotasuna da. Animalia askok izan dezakete parasittoa, baina horien artean kezkatu behar gaituzten bakarrak txerria eta basurdea dira, familiakideak gainera. Neurriak hartzeko, gomendagarria dena baino tenperatura askoz altuagoetan egosten ziren lehen biak ala biak. Gaur egun, aldiz, parasittoa kontrolatzea lortu dute. Hortaz, ez ezazu prestatu txerria 71 gradu baino goragoko tenperaturetan.

LARANJA-ZUKUA ETA BERAREN BITAMINAK. «Edan ezazu zukua arin, egin berria dago eta». Ziur nago bati baino gehiagori egiten zaiola ezaguna esaldi hori. Zientziak dienez, haatik, kasu honetan behintzat gurasoek ez dute arrazoirik. Izan ere, Maria José Ibáñez Dietista eta Nutrizionisten Kontseilu Orokorreko kidea eta EAEko D-N Eskolako presidentearen arabera, «elikaduraren gaineko mitorik handienetarikoa bat da laranja-zukuaren bitaminena, eta ez du inongo oinarri zientifikorik». Egia da denbora igaro ahala hainbat bitamina galdu egiten dituela elikagaiak, baina prozesua ez da berez horren azkarra. «Laranja-zukua estali eta hozkailuan gordetzen badugu, bitaminak hamabi orduz mantenduko dira, gutxi gorabehera», azaldu du Ibáñezek.

ALKOHOLA EZ DA DESAGERTZEN. Hainbat ikertzailek eztabaidatu dute gai honen inguruan. Lurrundu egiten da



Bitaminak ez dira desagertzen laranja-zukua egin eta berehala

Ikerketa baten arabera, laranja-zukua estali eta hozkailuan gordetzen badugu, bitaminak hamabi orduz mantenduko dira.

alkohola janaria prestatzen dugunean? Idahoko Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, alkoholaren %5 murrizteko beharrezkoa da gutxienez bi ordu eta erdiz jakiak prestatzea, eta su motelean, gainera. Hortaz, ardoa irakiten ipintzen dugunean lortzen duguna mingostasuna kentzea da, baina alkohola ez da desagertuko berez. Horrek ez du esan gura ez dugunik kozinatu behar, noski, baizik eta kontuan dela izan behar dugula alkohola hor egongo dela, medikazioa hartzen bagabiltza, edota intolerantziaren bat baldin badugu.

ARRAUTZA ETA KOLESTEROLA. Ikerketa askok erakutsi dute arrautza jateak ez duela zuzenean heriotza eta bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua handitzen. Berezik hedatuta dagoen mitoa izan arren, ez guke kontuan hartu behar. Izan ere, beste metaanalisi batek ziurtatu berri du sineskeria hori ez dela egia. Horren arabera, astean zazpi arrautza baino gehiago jan daitezke bihotzeko gaixotasun edota heriotza-arriskua handitu barik. Aztertu behar gukeena, bestalde, jango dugun elikagaia sortzen duten oiloen jatorri eta egoera da, horixe baita benetan garrantzitsua.

OGIAK LODITU EGITEN DU. «100 gramoko 250 kilokaloria inguru ditu ogiak, hortaz, neurriz kontsumitu beharra dago». Izan ere, eta gehienoi ondorengoa entzutea gustatzen ez zaigun arren, ura ez den guztiak loditzen du. Bestalde, pertsona batzuek ogiari leporatzen dizkiote erru guztiak, egunean zehar egiten dituzten gehiegikeriak kontuan hartu gabe. Eta noski, argaldu gura dutenean, hura jateari uzten diote, horregaz dena konponduko balitz bezala. Elikaduran adituak direnak, bestalde, haserretu egiten dira mito horregaz. Zein ogi aukeratu beharko nuke, zuria, zekalezkoa ala integrala? Nik neuk benetako ogia dut kutunena, gasolindegietan erosten dugun horren erabat kontrakoa, hain zuzen. Baina hori hurrengo artikulu baterako utziko dut... ◀

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

Elikagai ekologikoak

Ekizleak eta banatzaileak

★ Etzez etxeko zerbitzua



Santa Mariñe eskalada harrobi zaharberritua

1978an hasi ziren lehenengo eskalatzaileak Urdulizko Santa Marina ingurura hurbiltzen, bere hareharrizko paretak eskaltzeko asmoz.

Xixel eta paraboltak ipini, eta bidea zabaldu zuten inguruetako baserriak eta Butroe gaztelua eraikitzeko erabili zen harrobian. Gaur egun, Urduliz, eskalada-eskola berriztua bihurtu da pertsona bolondresen lanari esker.



Eskalatzaile guztientzako eskola bultzatu guran

Eskalada munduan, sokagaz eskalatzeko ekipatzaileak dira bide berriak zabaltzen dituztenak, paretetan seguruak muntatzen dituztenak, eta hauen gustuen arabera izango dira irekitako bideak. Hortaz, eskalatzaile indartsuak haien gustuko bideak prestatuko dituzte, eta maila baxua dutenek, zaila edukiko dute bide horietan disfrutatzea. Urdulizen aldiz, maila guztietako eskalatzaileak daudela pentsatu, eta hainbat zailtasuneko bideak zabaltzeko dira.





Urdulizen 8 sektore eta 100 bide inguru dago, hainbat modutan gozatzeko aukera eskeintzen duen eskola da

Eskaladan hasteko aukera ona da eskola, hainbat zailtasun maila baitaude, betiere eskalatzen dakien lagunakaz batera; segurtasunez. Hainbat eskalada mota praktikatu ahal dira, sokagaz luzeak probatzeko aukera dago ere, eta blokea egin daiteke txoko batzuetan. Gaur egun, 8 sektore eta 100 bide baino gehiago dago, batzuk zaharberrituak eta beste batzuk berriak.





Materialen zaintza eta garrantzia

Instituzioetatik kanpo dauden pertsonak izan dira beti eskola mantendu dutenak. Eskalada hasi zenetik, hainbat pertsona ibili dira Santa Marinako paretetan xixelak eta parabolak ipintzen, segurtasunez eskalatzeko. Garai horietan erabiltzen ziren materialak ez ziren oso aproposak, eta berriztatze-lanetan ibili da urteetan bolondres talde bat. Materiala jendearen diru ekarpenagaz ordaindu da, eta instalazio lan ordu askogaz. Garrantzitsua da jakitea zer egin behar dugun materialen higadura murrizteko, eta segurtasunez eskalatzeko.

Apirilaren 16an, lan eguna antolatu zen, zaborrak garbitu, tokiko zuhaitzak eta landareak babestu eta paretetako seguru batzuk aldatu ziren. 40 pertsona inguru hurbildu ziren, umeak barne, eta zabor asko batu zen: gurpil zaharrak, aspaldiko teilak, burdin harizko hesiak, kristalak eta hondakinak haien artean.





Santa Marinako basiliza mantentze-lanen faltan dago

Puntan dagoen basilizak (Indalecio Ojangurenek ateratako argazkia, 1954. urtean) ateak apurtuta ditu, eta teilatuaren parte bat jaustear dago. Konponketak behar ditu arriskutsua baita kuxkuxeatzera sartzen direnontzako, edo teilatuko partean dauden bideak eskalatzeko. Bolondres taldeak, Moruatxako ertza garbitu eta ekipatu du, eta antzinako harrobiko bagoneten topea garbitu eta panel informatiboa ipini ere.





Narcissus Trianduss, natura zaintzea beharrezkoa da

Ingurumena zaindu behar da, tokiko zuhaitz, landare eta animaliak errespetatuz. Zuhaitzak babestu eta landatu dituzte: arteak, gurbitzak, gorostiak, hurritzak, pagoak, haritzak... Eta urtero legez, belatz familia batek kabitzat erabiltzen duen paretako zuloa errespetatu dute. Narcissus Trianduss izeneko nartsizo mota berezi hau (argazkian), babestutako lorea da eta horregatik bereziki zaindu behar den landarea da.



Eskola guztiona da

Orain arte garbiketa lan egunak antolatu diren bezala, aurrerantzean ere eskolaren hobekuntzan eta mantenimenduan laguntzeko aukera zurea da. Adi internet bitartez egingo diren deialdiei. Eskolako informazio gehiago eskuratu gura baduzu, paretan azpian jarri dute panel bat, lekuko sektore eta bideakaz, eta bolondresen kontaktuakaz. Aitzakia ona da eskola ezagutzeko eta eskaladaz gozatzen hasteko.





Eider de Dios Historialaria

«Ikusezinen artean ikusezinenak dira etxeko langileak»

Etxeko zerbitzuaren bilakaera aztertu du Eider de Dios historialariak doktoretza-tesian, emakume langileen nortasunaren eraikuntza ardatz hartuta. 2016ko irailean egin zuen tesiaren defentsa, eta sari bi irabazi ditu egindako lanagatik. Ondorioz, liburu bat argitaratu du, eta beste bat plazaratzeko lanean dabil momentu honetan. Sopelako Plaza Beltza Kulturgunean eman berri duen hitzaldia aprobetxatu eta elkarrizketa egin diogu.

TESTUAK: AINHOA BRETOS ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Etxeko zerbitzuaren bilakaera aztertu duzu frankismoan eta trantsizio-garaian. Hala da. Horretarako dokumentazio-lan handia eta elkarrizketa asko egin ditut, Bilbo Handian bereziki, baina Madrilgo eta Valentziako hainbat emakumerekin ere egon naiz, besteak beste. Azken batean, diktadura zentralista izan zen, hortaz, dokumentazioa Madrilen dago, eta antolamendua berdina da erkidego guztietan. Nire lanean arreta bereziki Euskal Herriari eman diodan arren, testuingurua Espainiako Estatu mailakoa da.

Horrelako lan bat osatzeko ahalegin handia egin beharra dago. Zenbat elkarrizketa egin duzu? Modu profesionalen 30 bat inguru egin ditut, baina modu informalean asko, ez nuke asmatuko zehazten. Taldea ere egin izan ditut batzuk, eta horietako gehienak ez dira liburuan izen-abizenarekin idatzita agertzen, baina lana bideratzeko garaian oso lagungarri eta esanguratsuak egin zaizkit, bereziki nondik nora jo nahi eta behar nuen jakiteko.

Zergatik aukeratu zenuen gai hori? Unibertsitatean historia ikasten nenbilela, emakumezkoen lan-tasen bilakaera aztertu genuen. Konturatu nintzen grafiko guztietan agertzen zela U formako parabola antzeko bat, hau da, XIX. mendean goi-goian dago puntua, frankismo garaian, aldiz, behe-behean kokatzen da, eta 70eko hamarkadatik aurrera gorantz egiten du. Ez nekien zein zen bat-batean eta horrenbeste jaistearen arrazoia. Izan ere, nire amama biak langileak ziren, baita nire lagun eta ezagunenak ere. Kontua da estatistikak diskurtsoaren arabera egiten direla.

Lanaren helburua

«Gai hau aukeratu nuen, besteak beste, ikusgarritasuna eman nahi nielako beti ezkutuan egon direnei»

Langileen profila

«Oso gazte zirela hasten ziren lanean, zazpi edo zortzi urterekin, eta gehien-gehienez hamalaurekin»

Frankismoan oso txarto ikusten zuten ezkonduko emakumeek lan egitea. Hortaz, egin egiten zuten, noski, baina beti modu ezkutuan. Bilboko San Inazio auzoan, esaterako, kro-moak eta jostailuak egiten zituzten emakume askok, industria-lana, baina nork bere etxetik. Hori oso merke ateratzen zitzaion enpresari, gainera, ez zuelako egoitzarik, argirik eta bestelakorik ordaindu behar.

Horrez gain, gai hori aukeratu nuen ikusgarritasuna eman nahi nielako beti ezkutuan egon direnei, eta iruditzen zait ikusezinen artean ikusezinenak etxeko langileak izan direla.

Zelakoa zen etxeko langileen profila? Euskal Herriari dago-kionez, oso gazte zirela hasten ziren lanean, zazpi edo zortzi urterekin, eta gehien-gehienez hamalau. Bilbo inguruan lanean zebiltzan gehienak bizkaitarrak ziren hasiera batean, baina denbora pasa ahala gero eta etorkin gehiago zegoen. Orokorrean goseteari aurre egiteko egiten zuten etxeko zerbitzua lehenengo urtetan, eta bizi-kalitatea hobetzeko ondoren. Dena den, profila garaiaren arabera da.

Zure lana hiru etapatan banatu duzu. Zeintzuk dira garai horietako bakoitzean etxeko zerbitzuan lan egiteko zituzten arrazoiak? Lehenengo etapa gerraostekoa da. Goseteari aurre egin behar ziotelako egiten zuten etxeko zerbitzua. Ez zuten soldatarik jasotzen, ohea eta janaria ematen zieten trukean. Horrez gain, errepresioari aurre egiteko estrategia ere bazen, izan ere, bertakoek harreman ona bazuten erregimenarekin, onurak izan ahal zituzten etxeko langileek ere. Nire elkarrizketatuek ez didate horrelakorik azaldu, baina dokumentue-

tan irakurri izan dut. Nolabait, bazekiten txiroak izateagatik, edota errepublikaren aldeko aita izateagatik, ez zutela ikasteko aukerarik izango. Hortaz, arrazoi ekonomikoez gain, politikoak ere bazituzten.

Etxeko zerbitzuari dagokionez, egoera oso latza zen. 24 orduz egiten zuten lan, lotan zeudenean ere adi eta prest egon behar zutelako. Noski, zerbait gertatzen bazen, adibidez, umeak botaka zeudela, beraiek altxatu behar ziren. Berez, lan-eskaintza handia zegoen garai horretan, hortaz, gustura ez bazeuden, erraz aldatu ahal zuten etxea. Baina errealtatea ez zen hori. Lotura handiak egiten zituzten zaintzen zituzten ume eta pertsona nagusiekin, eta hori oztopo bat zen baldintza txarrak salatzeko orduan edota etxea uzteko garaian. Ez zuten beraiengandik banandu nahi, etxeko jabeek bazekiten hori, eta txantaje emozionala egiten zieten langileei.

Bigarren etapak frankismoaren erdialdeari dagokio. Migrazio handia zegoen, bereziki Burgos, Extremadura eta Galiziatik etortzen ziren Euskal Herrira, eta gehienbat bizi-kalitatea hobetzeko. Beraz, ordurako arrazoi nagusia ez zen gosetea, hobetzea eta aukera gehiago izatea baizik, eta horretarako, kasu askotan, migratzea eta etxeetan lan egitea beste biderik ez zuten. Garai honetan ez zegoen ondo ikusia emakumeek etxetik kanpo lan egitea ezkondu ostean. Hortaz, emazte izan arte egunean 24 orduz egoten ziren lan egiten zuten etxean. Ondoren, aldiz, zortzi bat orduz. Horrez gain, «zerbitzari» hitza aldatu zuten, eta «enplegatu» terminoa erabiltzen hasi.

Azken etapa trantsizio-garaia da. Hainbat alderdi eta sindikatu borrokan hasi ziren, eta 1985ean etxeko zerbitzua arautzea lortu zuten. Dena den, modu oso berezian arautu zuten, eta berezia zentzu txarrean diot. Adibidez, baja hartzean 29 egun igaro behar ziren dirua kobratzen hasteko, hortaz, gaixorik egon arren, ez zuten hartzen. Langabezi eskubiderik ere ez zuten. Izan ere, oso zaila zen etxeko langileen eskubideak aldarrikatzea, sindikatu eta alderdiak oso maskulinizatuta zeudelako. Azkenean, mugimendu feministak hartu zuen borroka bere gain, eta Etxeko Langileen Elkartea sortu zuen, gaur egun ere bizirik dagoena.

Zelako harremana zuten etxeko jabeakaz? Harremana ere erabat ezberdina da garaiaren arabera. Lehenengo etapan esaten zuten familiarren arteko harremana zutela, eta etxeko zerbitzurako emakume bat hartzea adopzio baten antzeko zerbait zela. Noski, etxeko langileek bazekiten hura ez zela euren familia, eta orokorrean oso txarto iruditzen zitzaaien hori esatea, hipokresia hutsa zela salatzen baitzuten. Esan bezala, ez zuten soldatarik jasotzen, horren ordez etxea eta janaria ematen zieten, baina baita bergizarteratzeko aukera ere. Hau da, etxeko zerbitzua erabiltzen zuten Gerra Zibileko galtzaileei lotutako klase sozial txiroa berrezteko sistema modura. Denak ez ziren Errepublikaren aldekoak, baina frankismoarentzat txiroak zirenak, automatikoki, erregimenaren kontra zeuden. Horrez gain, emakumeak fintzeko modua zela zioten ere.

Bigarren etapa mistoa da. Soldata jasotzen hasi ziren, baina familiarren eta adopzioaren irudi horrek jarraitu zuen indarrean, eta horrela justifikatu egiten zuten ordaintzen zuten lansari hori oso murrizta izatea. Dena den, garai honetan etxeko zerbitzua lantzat hartzen hasi ziren apurka-apurka.

Azken etapan zuten harremana enpleguaren eta enplegu-emailaren artekoa zen gehienbat, familiarren eredia guztiz desagertuta baitzegoen. Egia da ez zirela beste langile batzuen modukoak, orokorrean ez zituzten berdin tratatzen eta baloratzen, baina beraien lana bazegoen araututa, bazegoen lege eta mugimendu bat horren atzetik.

Salatu egiten zituzten lan-baldintza txarrak? Bai, noski. Errepublikara garaian etxeko langileentzako sail berezi bat zuten CNT eta UGT sindikatuek. Frankismo garaian, aldiz, oso zaila zen salatzea, bereziki ez zelako lantzat hartzen, arautu gabeko zerbitzua zen, eta familiek tratatzen zuten. Hala ere, ikusi izan ditut gutunak. Hainbat emakumek idatzi zioten frankismoaren organismoari lana arautzeko eskatuz



Mende erdian, gosetetik ihes egitetik zerbitzua arautzea lortzera

Gerraostea: Lehenengo etapa honetan goseteari aurre egiteko egiten zuten lan emakumeek. Horrez gain, arrazoi politikoak ere bazituzten, izan ere, Gerra Zibileko galtzaileak berrezteko sistema modura erabiltzen zuten etxeko-zerbitzua. Langileek ez zuten soldatarik jasotzen, trukean ohea eta janaria ematen zieten. Hortaz, etxeko langilea hartzea adopzio baten modukoa zela zioten, eta euren arteko harremana familia artekoa zela.

Frankismoaren erdialdea: Bigarren etapa honetan migrazio handia zegoen, eta gehienbat euren bizi-kalitatea hobetu gura zutelako etortzen ziren Euskal Herrira. Hortaz, lan egitearen arrazoi nagusia ez zen goseteari aurre egitea. «Zerbitzari» berbaren ordez «enplegatu» erabiltzen hasi ziren, eta soldata txiki bat jasotzen ere bai. Dena den, familiarren ideia horrek indarrean jarraitzen zuen, eta horrela justifikatzen zuten ematen zuten ordainsaria oso murrizta izatea.

Trantsizioa: Azken etapan etxeko zerbitzua arautzea lortu zuten. Zehazki, 1985ean egin zuten legea, eta nahiz eta gauza asko salatzeko bidea eman zuen, ez zituen langileen hainbat eskubide errespetatzen. Familiarren irudia guztiz desagertu zen; hori dela eta, harremana enplegatu eta enplegu-emailaren artekoa zela esan daiteke.



Etxeko langileak 2017ko martxoaren 8ko manifestazioan. HODEI TORRES

Hirugarren etapan erraztu ziren gauzak, 1985eko legeak, nahiz eta txarra izan, bide eman zuelako salaketak egiteko. Esate baterako, hamarkada horretan zehar Euskal Autonomia Erkidegoko udaletxe gehienek emakumeak kontratatu zituzten etxeko laguntzaile lanak egiteko. Dena den, ez ziren udaletxe-ko langileak. Udaletxeak zerbitzu horien onuradun izango zirenei ematen zien dirua, gero eurak ordaindu zezaten zerbitzua. Emakume horiek ez zuten elkar ezagutzen, baina kartelak ipintzen hasi ziren, eta bata bestearekin biltzen, eta 1989an erkidegoan greba egin zuten. Herri askotan egin zituzten protesta eta mobilizazioak.

Zelako mobilizazioak? Getxon lanean ari zirenak udaletxean giltzapetu ziren, adibidez, eta hainbat eserialdi egin zituzten. Horrez gain, urte hartako martxoaren 8ko manifestazioaren buruan izan ziren etxeko langileak, *Ezkutuko lanak emakume izena du* lelopean.

Eta zelakoak izan ziren emaitzak? Askotarikoak izan ziren. Herri batzuetan kooperatiba bat sortzea lortu zuten, Erandion adibidez. Getxokoak, aldiz, kaleratu egin zituzten, eta beste asko ere. Epaiketa askoren ostean, 1995ean, milioi askoko sententzia ezarri zuten euren alde.

Balioa eman
«Etxeko langileak
existitu egiten
dira, egiten duten
lana monetaz
zenbatzeko
modukoa da eta,
beraz, balioa eman
behar zaio»

Zer ekarri zuen lorpen horrek? Mugimendu feministarentzat izugarria izan zen, ekonomia feministaren aurrekontuak konprobatzeko modu bat baita. Horrez gain, lorpenak argi eta garbi utzi zuen etxeko langileak existitu egiten direla, egiten duten lana monetaz zenbatzeko modukoa dela eta, beraz, balioa eman behar zaiola. Azken batean, ikusgarritasun handia eman zion, eta hori oso garrantzitsua da.

Zelakoa da gaur egungo egoera? Esango nuke, zenbait gauzatan hobera egin duen arren, beste askotan atzerantz goazela. Uste dut arrazakeria handitu dela, eta ausartuko nintzateke esatera klasismoak ere gora egin duela. Erabat desagertuta zegoen 24 orduz lan egiten duen emakumearen figura, eta gaur egun badaude horrelako asko, atzerritarrak bereziki. Batzuetan ezkutan lan egitea besterik ez dute. Gertatzen da enplegu-emaileak paperak egin nahi ez izatea, ostean beste lan batera joango diren beldurrez. Mehatxuak ere badaude, eta askotan langileek bada-kite baldintza txarrak salatuz gero etxeko jabeak poliziari deitu diezaiokeela, esateko paperik gabe daudela hemen.

Dena den, esan dudan bezala, zenbait gauzatan hobera egin dugu. Mugimendu feminista inoiz baino indartsuagoa da, sendagai gehiago ditugu, eta emakume askok eta askok borrokatzen dute legalizazioa eta erregulazioa lortzeko. ◀

Zinez diot **Caras y lugares**

Arteari eta gizarteari buruzko dokumentala

TESTUA: IZASKUN RODRIGUEZ ▶



Caras y lugares

Jatorrizko izenburua: Visages, villages
Zuzendari, gidoilari eta antzezleak:
Agnès Varda, Jean René
Iraupena: 94 min
Maiatzak 14, 20:00etan
Kultur Leioako auditoriumean

Agnès Varda zinemagintzan dabilen edozeinentzat erreferentea da. 60ko hamarkadan zine-mundua irauli zuen *Nouvelle Vague*-ko aitzindari izan zen, bere lehenengo filmarekin: *Le pointe courte* (1955). Filmaketa horren argazki baten bidez egin dio Canneseko Zinemaldiak omenaldia aurtengo kartelean. 26 urterekin istorio bat kontatzeko edozer egi-teko eta edonora igotzeko prest dagoen neska erakusten du irudiak. Mantendu zuen izpiritua, zalantzarik gabe.

Zinean buru-belarri 60 urte baino gehiago eman ondoren, martxoaren 29an galdu genuen kultur zaleok Agnès Varda, bere filmen samurtasunagatik gogoratuko duguna. Zorionez, ez dugu beraren begirada argia galduko, zeluloidean iraungo du. *Visages, villages*, 2017an, 89 urterekin, estreinatu zuen lana duzue adibide.

Jean René da dokumental dibertigarri honen bigarren izarra. Formatu handiko argazkilari famatuak, Louvre Museo-ko piramidearen 30. urteurrena ospatzeko, apirilean aurkeztu du bere azken lan txundigarria. Vardarekin bizi izandako hainbat abenturaren ostean, Renék ere zerutik ikusteko adinako tamaina duen artelan erraldoia burutu du. Artistaren azken agurra beste artista bati.

Caras y lugares dokumental entretenigarrian bikote bitxia, maitagarria, argia eta alaia osatzen dute 33 urteko Jeanek eta 89 urteko Agnès-ek, elkarrekin Frantziako txokoetan sormena zabaltzearekin batera. Formatu handiko argazkiak inprimatzea ahalbidetzen dien furgoneta xeblebrean sartu eta herrietako historien bila abiatu dira. Herritarren jarrera ezin hobea da aurkeztzen dizkieten erronka edo ekintzen aurrean.

Varda eta Renénen pausoak jarraituz ezagutuko ditugu Frantziako herri txiki-tako historia txikiak: meatzarien azken etxeak edo nekazaritza eta lantegietako langileak izango dira protagonistak. Umorea eta ideia txoroak ere ez dira faltako.

Barrea, zoriontasuna eta malkoren bat ere osatzen dituzte 94 minutu hunkigarri hauek, non artea museo eta aretoetatik urrun eta herritarrengandik hurbil ikusiko baitugun. Iragankor izateak, egun batetik bestera naturaren eraginagatik desagertuko direla jakiteak, gainera, argazki moduko adierazpen artistiko hauei beste zentzu bat ematen die. Artearen helburua edertasuna, komunikazioa, biho-tza eta burmuina astintzea bada, lan honek erabat betetzen du. ◀

Irakurrian **Tximeletak bizkarrean**

Jaioterrira eta iraganeko mamuetara buelta

TESTUA: URIBE KOSTAKO IRAKURZALEEN TXOKOA ▶



Tximeletak bizkarrean

Egilea: Ugaitz Agirre
Argitaletxea: Susa
Urtea: 2018
Orrialde kopurua: 313
Jatorrizko hizkuntza: Euskara

Datorren maiatzaren 30ean izango da Algortan, Villamonteko Kultur Etxean, Ugaitz Agirre usurbildarra (1992), *Tximeletak bizkarrean* eleberraren egilea, Uribe Kostako Irakurza-leen Txokoan biltzen garenokin aurrez aurre liburuaz berba egiteko.

Sara da eleberraren protagonista. Kata-luniako herri batean du jatorria, Gironellan, baina Florentzian (Italia) bizi eta lan egin du azken urteotan. Historia irakaslea da bertako unibertsitatean. Nobelaren hasie-ran, Sarak Giulia izeneko lankide italiarra ezagutu du orain hilabete gutxi eta haren bitartez harreman mota berrietara hurbil-tzen hasita dago. Noraezean sentitzen da. Hausnartzeko epea behar du. Nahasita du burua. Kinka larrian dago.

Sarak ahizpa gazteago bat dauka, Ana, herrian geratu zena haien aita larriki gai-xotu zenean. Sarak egin zuen bezala Anari ere Bartzelonako Unibertsitatean ikasketak egitea gustatuko litzaioke, baina etxekoen zaintzen ardura bere gain hartu behar izan zuen, Sara heritik urrun mugitu zen bitar-tean, ikasketak eta lanbidea garatzeko.

Anaren dei bati erantzunez, Sara aitarekin hitz egitera itzuli da herrira hainbat urteren ostean. Ez da Gironellan eroso sentituko, ez zaio herria ezagun egingo; den-borak dena aldatu du: espazioak, paisaiak, jendea... Aspaldikoekin egon da aurrez aurre, eta galdera asko egin ditu eta egin dizkiote. Kontu asko baitago argitzeko. De-nen bizitzak aldatu dira eta bat baino gehiagori heriotza ere iritsi zaio.

Sasoi batean, Marta eta Xavi Sararen lagun minak izan ziren. Bigarrena Bartzel-onan bizi da, senarrarekin batera. Florentziara itzultzeko bidean, Sara Bartzelonara abiatuko da Xavirekin, eta bide batez ikasle-garaiko gela, areto eta giroak gogoratze-ko pausoak emango ditu. Ugaitz Agirreren narrazioaren bitartez, soinu, pentsalari, orientazio, esparru, garai historiko eta eszenario ugaritara helduko gara. Liburuak hainbat jendarte, bizimodu, iritzi eta kezka ezagutzeko parada ematen digu, euskara dotore eta jatorrean. Hamaika kapitulutan banatuta dago eleberria, eta horietako ba-koitzak izenburu bitxi bat du. Liburuaren izenburuak berak, berriz, itsasoaren bes-taldeko ukituak ekartzen dizkigu.

Esan bezala, Getxora etorriko da eleberraren egilea datorren maiatzaren 30ean, Uribe Kostako Irakurza-leen Txokoak gonbidatuta. Hitzordua 19:30ean da. Animo eta zatozte! Aukera ederra izan daiteke! ◀



BEREZI

Haur moda eta lentzeria
(Algorta)

 @berezialgorta

 berezinoda@gmail.com

 944604883

 Telletxe 15 - GETXO



GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat!

Getxo eta Berango artean

Hezkuntza

hiruka
Gehigarri berezia


147. zenbakia
2019ko maiatza

Etorkizuna marrazteko garaia dute ikasleek

Hurrengo orrialdeetan aholku-sorta bikaina duzue derrigorrezko hezkuntza amaitu dutenek euren ondorengo ikasketak non egin aukeratu dezaten, baita ere etxeko txikienentzat haur-eskola topatzeko.



Batxilergoa, ikasleen lan-etorki



Altzaga-Erandio Haurreskola

Matrikulazioaren epea: maiatzaren 2tik 10ra (biak barne).

Periodo de matriculación: del 2 al 10 de mayo (ambos incluidos).



Zatoz haurreskola ezagutzera! apirilaren 15an eta 30an 17:00etatik 19:00etara.

Ven a conocer el centro el 15 y 30 de abril de 17:00 a 19:00 h.

ALTZAGA-ERANDIO HAURRESKOLA

Desanexión, 4 - ERANDIO

Telefona: 944 674 687

Korreo elektronikoa: altzaga.erandio@haurreskolak.eus

<http://www.haurreskolak.eus>



GORLIZKO HAURRESKOLA 2019/2020



IZENA EMATEKO EPEA ZABALIKI!
Maiatzaren 2tik - 10era

Edozein galdera edo zalantza gerturatu edo deitu telefonoz:
946 773 765 (08:00etatik 16:15etara)



haurreskolak.eus

Urtiene estrada, 5 - GORLIZ

izunaren giltzarri eta ardatz

DBH bukatu eta jarraian, euren lan-etorkizuna zein izango den erabakitzeke lehenengo pausoa eman behar dute ikasleek. Izan ere, aukeratutako batxilergo-motaren arabera izango dira euren goi-mailako ikasketak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) amaituta, euren etorkizun profesionala orientatu beharra dute ikasle askok. Izan ere, batxilergoa bukatu ondoren, horien gehiengoak lanbide-heziketara salto egin edo karrera bat ikasiko du unibertsitatean; hala, norberak egin gura duen bidearen arabera aukeratu beharra du batxilergoaren modalitatea.

Erabaki hori atzeraezina ez izan arren, neska-mutil asko okerreko aukera hartzeaz beldur da; hori dela eta, ikasleek euren interesak, gaitasunak eta trebetasunak kontuan hartu beharko lituzkete modalitate bat edo beste aukeratzeko eta euren etorkizuna modurik egokienean bideratzeko. Hala ere, zer gerta daiteke ikasleek erabakia argi ez dutenean? Eta datozen ikasturte bietan iritziz aldatuko balute? Egoera horien aurrean, egokiena da eskolako orientatzailearengana jotzea, izan ditzaketen zalantza den-denak argitu ditzaten erabakia hartu aurretik.

Baina, zein batxiler-mota dago gaur egun? Bada, lehenengo Zientzia eta Teknologia da, bere izenak dioen bezalaxe, zientzia eta teknologiari lotutako gaiak jorratzen dira horretan eta horiek denak gustuko dituztenentzako aukerarik egokie-

Hiru batxiler modalitate daude: Zientzia eta Teknologia, Giza eta Giza Zientziak eta Arteak.

na da hori. Batxilergo mota horri lotutako hainbat gradu dago, besteak beste honakoak: medikuntza, biologia, fisika, matematikak, ingeniariak eta arkitektura. Bigarren aukera Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa da, eta horri lotutako hainbat ikasketa zuzenbidea, magisteritza, kazetaritza, soziologia eta publizitatea izango lirateke. Azkenengoa, aldiz, Arte Batxilergoa da, eta goi mailako arteari lotutako ikasketak egin daitezke horri esker, besteak beste.

Ikus daitekeenez, batxilergoaren modalitatea ondo aukeratzeko oso garrantzitsua da, horren arabera goi-mailako ikasketaren bat edo beste egiteko aukera zabaltzen baitu. Hanka sartzeko handirik ez egiteko, baina, hainbat irizpide har daitezke kontuan. Esan bezala, unibertsitatean ikasi gura den karrerak batxilergo-mota bat edo beste hartzea behartuko du ikaslea, baita lanbide-heziketako goi-mailako ikasketek ere.

Zein bide egin gura duten argi ez dutenek, aldiz, euren interesen arabera gidatu beharko lukete euren erabakia batxilergoa aukeratzeko orduan. Era berean, aukeratutako ibilbidean ikasiko diren ikasgaiak hautatzeko unea, aukera guztien eskakizunak kontuan hartu behar dira, baita aukera gehienak eskaintzen dituzten gaiak irekita mantendu ere. Gainera, interesak oso argi ez dituztenek, lehenengo maila aprobetxatu beharko dute etorkizunerako irtenbide gehien eskaintzen dituzten ikasgaiak aukeratzeko. Era berean, bigarren mailan aldatutako egiteko zeintzuk aukera dauden ere argitu beharko dute. Halakoetan, gainera, titulua jaso ahal izateko, bigarren batxilergo-motan sartzen diren sei modalitateko ikasgaiak ikasi beharko ditu kurtso bietan.



ÉCOLE Haur Eskola

Matriculaciones Abiertas

Matrikulazioa Zabalik

680670405 / 671609040

Marianderesena kalea, 1
48991 · ALGORTA

www.haurreskolaecole.com infoalgorta@haurreskolaecole.com



BETIKO IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
 - Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

ikastolen-kartea



Batxilergoko metodologia eraldatzen

www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikastetxea

1979an jaio zen Derioko Politeknika Ikastegia Txorierri, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan kalitatezko irakaskuntza-eskaintza egiteko. Eskaintza hori hobetzeko ahaleginean, teknologia berritzeko pausoak ematen dituzte etengabe.

Metodologiaren inguruko hausnarketak, ikerketak eta berrikuntzak batxilergoan ere heldu dira. Horri esker, bigarren hezkuntzako ikasketa-maila horrek proiektuei eta arazoei aurre eginez lan egiteko aukera nabarmenak eskaintzen ditu orain Politeknika Ikastegia Txorierri. Modu horretan, ikasleek benetako egoeretan egongo balira bezala ikas dezakete.

Bide berri horri ekin guran, 2017-2018 ikasturtearen hasieran Ikastolen Elkarteak antolatutako ikastaroa burutu zuten Politeknika Ikastegia Txorierriko irakasle bik, «Batxilergoa eredu konpetentzia-lean, hastapen teknikoa» ikastaroan hain zuzen ere. Hurrengo urtean, 2018-2019 ikasturtean, irakasle bi horiek lanean jarraitu dute lan-mintegietan parte hartzen eta ikasleentzako askotariko erronka berriak sortzen.

Elkarteko beste ikastola batzuekatz batera landutako saio teoriko bat eta zenbait saio praktikoren ondoren, 2017-2018 ikasturtean proiektu bi gelaratzea lortu zuten, bata arlo zientifikoan ari ziren ikasleei egokitutakoa, eta bestea, aldiz, arlo teknologikoagoak lantzeko aproposa. Oraingoan, 2018-2019 ikasturtean, proiektu bana ipini dute martxan ebaluaketa bakoitzean. Gainera, azken horretarako, giza-zientziak arloetako ikasleek ere parte hartuko dute.

Orain arte batxilergoko lehenengo mailako ikasle denek parte hartu ahal izan dute proiektu horietan. Hala ere, datozen ikasturteetan bigarren mailako ikasleek ere parte hartzea ipini dute helburu gisa.

Proiektu horiek maila eta egoera jakin bat bizi duten ikasleentzat egokiak izan daitezten, ikuspegi zabala eta anitza behar-beharrezkoa da. Horretarako, testuinguru esanguratsuak aukeratzea ezinbestekoa da. Egiten ikasten da; hori dela eta, taldean lan egiten jartzen dituzte ikasleak, konpetentzia horiek gara ditzaten. Hala, gainera, elkarregaz eta elkarrengandik ikasteko aukera izaten dute ikasleek. Era berean, jakin mina eta motibazioa piztuz, ezagutza berrien beharra sentiarazten diete ikasleei, ondoren hausnarketarako aukera emateko.



Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin

ATEAK IREKITZEKO EGUNA

Gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak bisita ditzakezu (18:30ean):

Apirilaren 9an
Maiatzaren 9an
Maiatzaren 30ean

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industrialako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari



Untzaga Ibaia Kalea, 1
48160 - DERIO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



Esperientziaren bermea

Fadura LHII ikastetxeak 35 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, eta eskualdean enpresen eta inguruaren erreferentia izatea lortu du. Gazteak gizatasunez eta arlo teknikoan prestatzea da helburua, jendartean integra daitezen bai lan-mundura bai beste ikasketetara sartzegaz batera. 1980tik daroa ikastetxeak eskaintza zabala ematen lanbide-heziketan: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, eskaintza partziala, heziketa duala, enplegurako formakuntza, zereginen gela... Algortako Fadura inguruan dago, garraio-zerbitzu publikoetatik hur. Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasleen eta enpresen asebetetzea urtez urte handitzen doa, horien beharriaz erantzunez.

Balioetan hezte da Hezkuntza Proiektuaren oinarria, etengabeko harrera lagunkoiaren, beti hizketa-giroaren, ulermenaren eta berdintasunaren alde agertzen da Fadura LHII. Ugaritasuna ikasteko aukeratzat hartuz, eta dibertsitateari eskaintako arreta da pertsonetikiko eta komunitatearekiko duen konpromisoa.

Modu berean, ikasleen prestakuntza-mailagatik, formakuntza-eskaintza zabalagatik, laneko segurtasunagatik eta inguruarekiko konpromisoagatik, kalitate eta etengabeko hobekuntzarako kudeaketagatik eta eskualdean enpresa eta inguruaren erreferentia izateagatik gura du jendeak ikastetxea ezagutzea.



Hezkuntza- eskaintza

Goi-mailako Heziketa-zikloak

- Mantentze-lan elektronikoa
- Fabrikazio mekanikarako produkzioaren programazioa
- Haur-hezkuntza.
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa
- Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntza

Erdi-mailako Heziketa-zikloak

- Telekomunikazioa-instalazioak
- Mekanizazioa
- Karrozeria
- Ibilgailu automobilen elektromekanika
- Erizaintzako laguntzailea
- Osasun-larrialdiak
- Eskaintza partziala: Osasun-larrialdietan

• Zereginen gela

- Lanean zein langabezia daudenentzat «Lanbide» ikastaroak

- ULHI: Urrutiko eskaintza osasun-larrialdietan

- Lan-konpetentziak egiaztatze prozedurak

• Izena emateko:

- Online: www.fadura.eus
- Idazkaritzan bertan ere izena eman daiteke, goizeko 08:30etik 13:30era arteko ordutegian.

• Ate irekiak:

- Maiatzaren 21 eta 22an arratsaldeko 18:00etan.

Fadura Ikastetxea

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

Bizkerre zk.g. 48991 - Getxo

JARDUNALDI IREKIAK:

• ZIKLO INDUSTRIALAK

(Elektronika, Fabrikazio mekanikoa, Automozioa)

MAIATZAK 22, 18:00etan

• ZIKLO EZ INDUSTRIALAK

(Osasungintza, Kirolak, Haur-hezkuntza)

MAIATZAK 21, 18:00etan

Zure etorkizuna hurbil

Berrikuntza, Aniztasuna eta Kalitatea

Berdintasuna eta Ingurugiro-iraunkortasun balioetan hezitzaileak

Praktikak atzerrian, Irakasteko metodologia berriak, IKT heldutasuna

Tel: 944 069 000 - www.fadura.eus - instituto@fadura.eus



Batxilergoa eraberritzen

Batxilergoan praktika onak ezartzeko formazioan parte hartzen du ikastolak. Gainera, ikasleen etorkizuna erdigunean jarri eta orientazioari garrantzia ematen diote.

Ikastolen Elkarteko partaidea da Ander Deuna Ikastola eta, batxilergoa eskaintzen duten inguruko beste ikastola batzuekatz batera, batxilergoan praktika onak ezartzeko formazioan parte hartzen du. Horren bitartez, lehenengo mailan lantzeko prestatu ohi diren zenbait erronketan (heziketa finantzarioa, bizitza proiektua, elkarrekin erabaki...) irakasleen parte-hartzea eta esku-hartzea aztertzen dute. Era berean, derrigorrezko hezkuntzako azken urteetan erabiltzen den materiala erabili egiten dute, hori egokitzeko.

Giza eta Gizarte-Zientziak eta Zientzia eta Teknologia batxilergoak daude aukeran Ander Deuna Ikastolan. Era berean, hainbat eskaintza osagarri daude maila horietako ikasleentzako. Horien artean nabarmendu beharra dago euskarazko C1 maila, EGAREN parekoa, eskuratzeko antolatzen duten ikastaroa batxilergoko lehenengo mailako ikasleentzako. Horren bitartez, neska-mutilek ikastolan bertan prestatu eta egin dezakete azterketa. Era berean, *Oxford Test of English* programaren aztertzaile ofiziala ere bada ikastolan. Horri esker, ingelesean B1 edo B2 titulazioa lor dezakete ikasleek. Horretarako, online bidezko azterketa gainditu behar dute. Azkenik, batxilergoan zehar ere, aisialdirako monitore titulua lortzeko ikastaroa egin dezakete



Eremu zabala dauka Ander Deuna ikastolak, naturaz inguratua.

Euskara, ingeles eta aisialdirako monitore titulua lortzeko ikastaroak eskaintzen ditu Ander Deunak.

gazteek ikastolan bertan. Buruz buruko tutoretza-saioei ere garrantzi handia ematen diete. Izan ere, ikasleak oso gazte direla hasten dira etorkizunean jorratuko duten bidea aukeratzeko, eta erabaki zuzena hartzeko behar-beharrezkoa da orientazio egokia jasotzea. Zeregin horretan arreta berezia ipintzen du Ander Deuna Ikastolak.

Bigarren Hezkuntzako Institutua
Instituto de Educación Secundaria

IES artaza romo BHI

KALITATEA, SORMENA, ANIZTASUNA

BATXILERGO MODALITATEAK:

- **Zientzia eta Teknologia batxilergoa**
- **Giza eta Gizarte-zientzien batxilergoa**
- **Arte batxilergoa (eskualdeko ikastetxe bakarra)**

INSTALAZIOAK

Liburutegi 2 Teknologia gela 2 3 informatika gela Plastika gela 2	LABORATEGIAK Fisika Biologia Geologia Kimika Argazkigintza	ARTE-GELAK Irudia Arte-marrazketa Bolumena Pintura Teknika grafikoak
--	---	---

KIROL-INSTALAZIOAK

Amaia etorbidea, 28 · 48940 · LEIOA
 944 801 005 · 01511aa@hezkuntza.net · www.artazaromo.com

BATXILERGOA BACHILLERATO

arte arte
 zientzia eta teknologia ciencias y tecnología
 giza eta gizarte zientziak humanidades y CCSS

puertas abiertas - ate irekiak
 2 de mayo 18:30 maiatzak 2

IES artaza - romo BHI
 www.artazaromo.com

Aixerrota BHI
IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez
 DBH 1: Biologia eta Geologia (Euskara/English)
 DBH 2: Matematika (Euskara/English)
 DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)
 DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez
 • Zientzia modalitatea
 • Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zereginak ikasteko gela

**euskaraz
bizi
nahi dut**

INFORMAZIO +
 Santa Marina Haitza 14
 48993 GETXO
 944 911 786
 www.aixerrota.hezkuntza.net

SOPELAKO HAURRESKOLA
ATE IREKIAK

MATRIKULAZIO EPEA
Maiatzaren 2tik - 10era

ATE IREKIAK / PUERTAS ABIERTAS
 Maiatzaren 2, 6, 8 eta 10ean 10:00etatik-11:00etara
 Maiatzaren 8an 16:00etatik 18:00etara

ANTZAR POTZU 12, SOPELA (946.762.559)

hamilton
IDIOMAS

INGELES ALEMANIA FRANTSESA

Taldeak, enpresak eta partikularrak
 Eskolaz kanpoko ekintzak
 Maila guztiak
 Ingelesa hiru urtetik aurrera
 Talde txikiak
 Inglateran egonaldiak

SOPELAN, Dr. Landa 6.
 LARRABASTERRAN, Iberre 9.
 946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

hiruka

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan:
 944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

LauRO®
IKASTOLA
GURE JAKINTZA - GURE ASKATASUNA

Pertsonen talentua garatuz

Gure jakintza Gure askatasuna
KUKULUMENDI
 Pertsonen talentua garatuz

Konferentzia proiektua

Batxilerra ezagutzeko
Ate irekiak
 Conoce nuestro proyecto

Adostu hitzordua / Confirma cita:
 944538007, 212 luzapena
 rodriguezr@lauro.eus

Matrikula ofiziala egiteko epea:
maiatzak 2-14

LANBIDE HEZIKETA | Lan-merkatuan sartzeko aukera praktikoa

Espezializazioaren bidea

Lan-merkatuan sartzeko aukera erakargarria, irisgarria eta kalitate handikoa da Lanbide Heziketa. Denera, 170 gradu baino gehiagoren artean aukera daiteke.

Lanbide Heziketara jo ala karrera bat ikasi unibertsitatean? Galdera horri erantzun behar izaten diote neska-mutil askok batxilergoa amaitu ondoren. Baina, zer da egokiena? Aukerak amaigabeak dira, eta den-denak baliagarriak lan-merkatuan murgildu ahal izateko; beraz, bakoitzak norberaren interesen arabera erabaki beharko luke zer egin eta zer ikasi. Era berean, gogoratu beharra dago gaur egun Lanbide Heziketako goi-zikloekiko aurreiritzi txarrak alboratu egin direla gizartean, eta horien aitortpena unibertsitate-titulu baten parera iristen ari dela lan-munduan. Are gehiago, Lanbide Heziketako goi-mailako zikloetako ikasleen enplegarritasuna handitu egin da azken urteotan. Izan ere, Infoempleo-Adeccok egindako txostenaren arabera, mota horretako ikasketak gainditu zituzten beharginen beharra zuten lanpostuen %32,8a 2016an, eta zenbateko hori goranzko joera du. Era berean, gradu horietan ikasteko matrikulazioak %71 handitu egin dira azkenengo 10 urteetan, Espainiako Gobernuak emandako datuen arabera. Gainera, klaseetara joateko arazoak dituztenek aukera daukate ere mota horretako ikasketak egiteko, Urrutiko Lanbide Heziketako Institutuari esker. Aurten gainera, BirtLH jaio da, ikaskuntza birtual eta digitalizatuetaarako ikastetxe integratua. Hala, metodologia berrien modernizazio indartsu batean ipini dute arreta, baita teknologien erabilera intentsiboan ere. Hala ere, EAEn modalitate honetan ikasteko graduen eskaintza murriztagoa da zuzeneko ikasketakaz alderatuta.

ZER DA LANBIDE HEZIKETA? Lanbide Heziketa laneko kontuakaz eta lan-merkatuagaz estuen lotuta dagoen ikasketa-multzoa da, eta, gaur egun, norberaren etengabeko ikasketa-prozesutzat; hots, Lanbide Heziketaren barruan, prestakuntza arautua (eskola-adineko neska-mutitena), enplegurako prestakuntza (lanean daudenena) nahiz gaitasun profesionalen aitortza sartzen dira. Denera, 170 titulu inguru daude aukeran, ikasleek lanbiderako gaitasuna lortu eta lan kualifikatuak eskuratzeko.

Ikasgaiek eduki teorikoak eta praktikoak lantzen dituzte, eta enpresetan lan egiteko praktikaldiak izaten dituzte ikasleek. Horri esker, esperientziagaz atera ohi dira ikasleak, enpresek asko estimatzen dute hori, gainera. Era berean, mota horretako graduek zuzeneko espezializazioa eskaintzen dute, unibertsitateko karrerek ez bezala. Hala,



Lanbide Heziketako ikasleen enplegarritasuna handitu egin da azken urteotan.

URRUTIAN IKASI
Lanbide Heziketak klaseetara joateko arazoak dituztenentzako aukerak ere eskaintzen ditu.

Lanbide Heziketako ikasleek, urte bi ikasi ondoren, prest egon ohi dira lan-merkatuan aurrera egiteko, edo ikasten jarraitzeko. Izan ere, goi-mailako heziketa-zikloetan aritutakoek aukera daukate gerora unibertsitatean karrera bat egiteko, baita hainbat abantaila ere, hala nola ikasgaiak konbalidatzea ikasketak arlo berekoak izanez gero. Gainera, kontuan hartu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek estimu handian dituztela Lanbide Heziketako ikasleak. Horren erakusgarri da mota horretako ikasketak amaitu eta lan-munduan sartzeko aukera izan duten ikasleen zenbateko handia.

LANBIDE HEZIKETA DUALA. Enpresa eta ikastetxeetan ikaskuntza-prozesuak konbinatzeko aukera eskaintzen du LH Dualak, batzuen eta besteen arteko lankidetzaren bitartez. Ikasleek enpresan egiten duten formakuntzak lotura estua du heziketa-zikloko lanbide-profilagaz eta programatutako espezializazioagaz. Horrenbestez, enpresan egindako lan horiek, produkzio-eremua ez ezik, ikaskuntza bera ahalbidetzen dute. Era berean, lanari dagozkion gaitasunak, espezializazioari dagozkionak, eta enplegarritasuna hobetzeko bestelako zeharkako gaitasun erabilgarri batzuk eskuratzeko dituzte ikasleek. LH Dualaren modeloak bi dira: 2 urteko modalitatea, bigarren ikastaroa ikastetxean eta enpresan egiten dena; eta 3 urteko modalitatea. Azken horretan, helburua da ekoizpen-prozesu konplexuak direla-eta enpresek dituzten beharrei behar bezalako erantzuna emango dien espezializazio bat eskuratzeko.



KALITATEA BIKAIN TASUNA INNOVACIÓN CALIDAD DESDE 1963 EXCELEN

CIABERRIKUNTZA IDIOMAS SOCIALES

Ciencias DBH GUARDERÍA JANTOKIA

KIROLAK DANTZA AUZOLANKOOPE

RATIBOA MUSIKA BERTSOLARITZA

www.sanikolas.eus || 94 430 54 78 || Areneazpi, 15 - Algorta

Mundukatuak **Buenos Aires**

«Etengabeko mugimenduan bizi gara Buenos Airesen»



Nicolas Fernando Braim

Nongoa
Buenos Aires
(Argentina).

Adina
25 urte.

Zertan dabil?
Getxo Rugby taldean
jokatzen du.

Noiz heldu zen?
2018ko irailean.

Noiz arte bertan?
Getxo Rugbyk
denboraldia amaitzen
duen arte, 2019ko
ekainean.



Lurraldea
Argentina.

Azalera
2.780.000 km².

Hiriburua
Buenos Aires.

Biztanleria
2.890.000 (2010).

Hizkuntzak
Argentinako hizkuntza
ofiziala gaztelania da,
zehazki esanda Río de
la Platako gaztelania.
Horrez gain, tokiko
hainbat hizkuntza
ere erabiltzen
dituzte bertakoek.
Hegoaldean maputxea
eta kitxua dira
gehien hitz egiten
dituztenak, eta
ipar-mendebaldean
taba eta guarania.

Moneta
Argentinako pesoa.

AINHOA BRETOS ▶

Getxo Rugbyn jokatzeko eskaintza jaso zuelako etorri zen Nicolas Fernando Braim argentinarra Algortara 2018ko irailean. Zehazki Buenos Aires hirikoa da bera, eta inguruko lagun batez egin zuen Euskal Herrira bidaia. Talde batera zetorrenez, hemengo jendeagaz harremanak egitea erraza egin zitzaioala azaldu du. Dena den, hasierako momentuak apur bat zailak izan zirela dio, kosta egin baitzitzaion familia eta lagunengandik hain urrun egotea. Baina argi zeukan zertarako etorri den: «Goizetan gimnasioan entrenatzen dut, eta martitzen, eguen eta bariku arratsaldeetan errugbian jokatzen egoten naiz».

Esaten duenez, Buenos Aires eta Algortak ez dute zerikusi handirik, «etengabeko mugimenduan bizi gara han, zarata handia eta jende asko dago kalean, eta etxebizitza gehienek hamar solairu dituzte gutxienez. Algorta oso lasaia da. Hemengo bizi-kalitatea oso ona da». Uribe Kostatik gehien gustatzen zaiona paisaia da, hondartza eta itsasoagatik batez ere. Horrez gain, herriak txikiak izateak

ere abantailak dituela aipatu du: «Hemen dena dago hurbil eta eskura. Nire hirian distantziak askoz luzeagoak dira».

Baina bada gustatzen ez zaionik ere. Esaten duenez, Argentinan ohituak daude astelehenetik barikura bitartean lagunak etxean elkartzen: «Ia egunero gonbidatzen ditugu lagunak etxera matea hartzen. Hemen gutxiago elkartzen zarete aste barruan. Kalean, agian, baina etxeetan ez, itxiagoak zarete horretarako».

Hala ere, bere arreta piztu du pertsona helduak astebururo ateratzek: «Algortan egunero ateratzen dira helduak tragoak hartzera, domeka eguerdietan batez ere. Arratsaldeko 17:00ak arte egon daitezke lasai-lasai edaten. Buenos Airesen ez dago ohitura hori. Gazteak ateratzen gara gehiago, baina helduak ez».

Familia, lagunak, errekiak eta Argentinako futbola botatzen ditu gehien faltan. Daborduko erosia du bueltako hegaldia ekainaren 3rako, errugbi-denboraldia amaitu eta jarraian. Esaten duenez, pozik itzuliko da etxera; dena den, Algortan gustura bizi dela dio: «Esperientzia izugarria izaten ari da, eta pertsona moduan hazten lagunduko dit». ◀

Kirol egokitua Uribe Kostan aukera ugari

Oztopoetan ez sinistea, gainditze



Itxaso Munguira: Zailtasunei aurre egin, egunero garaipen berriak lortzeko

Berangoko atletismo taldeko kidea da Itxaso Munguira. Leioan bizi da berez, nahiz eta orain Madrilén dagoen, fisioterapia ikasten baitu ONCE Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren unibertsitatean. Zortzi urte zituela hasi zen korrika egiten, eskolan. Hemeretzi ditu gaur egun, astean bost egunetan izaten ditu entrenamenduak, eta hainbat sari irabazi ditu daborduko. Besteak beste, brontzezko domina bi irabazi zituen 2018ko udan Berlinen egindako Europako Txapelketan, bata 400 metroko lasterketan, eta bestea 200 metrokoan. Hori dela eta, banakako kirolean 2019ko Bizkaia Kirola Saria irabazi berri du. Azaldu duenez, kirolak gauza asko eman dizkio: «Lasaitasuna, pertsona berriak ezagutzea, eta egunero-egunero garaipenak lortzea». ◀

Jorge Pineda: ezinezkoa posible bihurtzea, urratsez urrats eta paladaz palada

Lau urte zituela hasi zen Jorge Pineda lehen pausoak ematen, nahiz eta jaio zenean medikuek uste zuten inoiz ezin izango zuela ibili. Burmuineko paralisi baten eraginez, hanken mugikortasuna baldintzatuta dauka 22 urteko gazteak. Hala ere, kirola betidanik egon da oso presente bere bizitzan, eta orain dela bederatzi urte arraunean hastea erabaki zuen.

Horretan dihardu gaur egun ere, Getxo-ko Arraun Taldean. Nazioarteko Arraun Federazioak (FISA) egokitutako arraunketa egiteko ematen duen sailkapena eskuratu duen bakarra da Espainiako Estatuan. Hala, Bulgarian egindako Munduko Txapelketan izan zen 2018an, eta zortzigarren gelditu zen. Horrez gain, zilarrezko domina irabazi zuen, 2018an ere, ergometroan egiten den Munduko Indoor Txapelketan, eta urrezkoa 2019ko Espainiako ergometroko txapelketan, Ourensen. Hori dela eta, Marka Hautsiz izeneko sari berezia eman berri diote Pinedari, Getxo Sasoi-Sasoiaren galan. Helmuga Tokion egingo diren 2020ko Paralinpiar Jokoetan du orain gazte getxoztarrak. ◀



ko modurik onena

Aniztasun funtzionala izateak ez du zertan oztopo izan kirola praktikatzeko, eta Uribe Kostan bada horren adibiderik. Hemen horietako batzuk.

TESTUA: AINHOA BRETOS ►



Goazen Up elkarteak: Elkartasuna, kirola eta festa, muga fisikoak dituzten pertsonentzat

Paddle SUP egokituari buruzko jardunaldiak antolatzen ditu urtero Plentziako Goazen Up kultura eta kirol elkarteak. Helburua SUPak terapia-sendabide modura duen onura zabaltzea da, psikologia eta yoga mugimendu psikomotorra minduta duten pertsonentzat. Proiektuaren sortzailea Aketza Sanchez da. 2012an surf-taulatik salto egin eta zerbikalak hautsi zituen Sanchezek. Errehabilitazioak eta Mikel Rotaetxegaz egindako yogak lagundu zioten sendatzen. Ostean, Goazen Up sortu zuten biek. ◀



Haszten: aniztasun funtzionala dutenen bizitza hobetzeko lan egiten duen elkarteak

Getxoko Haszten elkarteak 2014an sortu zen, aniztasun funtzionala duten ume eta gazte bizkaitarren kirolzaletasuna sustatzea helburu. Elkarteko programa nagusia Eskolak izenekoa da, 150 kirolari baino gehiagok hartzen baitu parte horretan: «Euren bizitza heziketa fisikoaren bidez hobetzeko egiten dugu lan». ◀

Ibilki erakundea: pertsonen osasun eta ongizatearen garapenean laguntzeko

Irabazi asmorik gabeko erakundea da Ibilki. Kirol- eta kultura-jarduerak eskaintzen ditu hainbat pertsona talderentzat, horien artean «ezgaitasunak dituztenentzat». Horretarako, mendi-irteerak antolatzen ditu Ibilki, bizimodu osasungarri eta integratzailea sustatzen dute eta: «Gure helburua oztopo fisikoak kentzea da, ezintasuna duten pertsonak ingurumenaz gozatu dezaten. Era berean, zaletasun onuragarriak bultzatu nahi ditugu». ◀



Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:



Itzala

Zein da patinatzaile xelebre honen itzal zuzena?



Dominoan

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.

Zortzikoa

Aurki itzazu irudi bien artean dauden zortzi aldeak.



Lehiaketa Non dago?

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko sariak irabaziko dituzu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria

Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 12-14 urte arteko umeentzako liburu 2 zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, maiatzaren 17a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.

Hau da festa!

Ui, ui, ui, hori da kuxidadea! Pelloziri urtebetetze-festa ospatzen dabil etxean, baina gonbidatuak ez dabilta oso txukun... Anabasa honetan zazpi ordulari aurkitu behar dituzu. Eta hori egin ondoren, margotu ezazu irudia zure gustura, batere kolorerik ez du-eta.



Flashback **Erandiko Axdrubal fanfarrea, 1982**

JOSU ZARATE ▶

Erandioko Axdrubal fanfarrea 1978an sortu zen. Euskal folklorearen pieza tradizionalak jotzen hasi ziren, inauteri-piezak eta jauzi batzuk. Geroago, beste estilo batekoak ere jo zituzten, taldean ziren jazz-zaleen eraginekoak barne. Lehenengoz Erandioko Arriaga auzoko jaietan plazaratu ziren. Hastapeneko urte hartan Lapurdiko Hazparnen egindako euskal mugimenduaren inguruko jai-egunean parte hartu zuten. Uribe Kostako hainbat jaitan ibili ziren jo eta ke, baita Bilbon sortu berria zen Aste Nagusian ere.

Argazkia 1982koa da. Aritu ziren urteetan hainbat taldekidek hartu zuten parte, batzuk joan besteak etorri. ◀

ARGAZKIAN:

Zutunik, ezkerretik eskumara: Isabel Zozaya, Juantxu Aresti, Gaizka Elozegi, Gotzon Lores, Mikel Arana, Esther Lopategi, Eukene Isazelaia.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: Damaso Azkarate, Juanra Elordui-zapaterietxe, Josu Zarate, Felix Aldai, Joseba Jauregi, Sabin Landaluze, Sabino Elordui-zapaterietxe.



JOSU ZARATEK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora



TESTUA
Daniel de Miguel
Avecilla

DOINUA
*Aita Jainkoak egin
banindu*

ARGAZKIA
Hodei Torres

Largabista

*Paparazziak atera nahi du
ezkutuan irudia;
baina aurrean dagoena da
mutil koskor bat argia.
Nahiz argazkiak izan beharko
zukeen ehizaren saria;
nor ote da hor harrapakina?
eta nor, ba, ehiztaria?*

*Lenteak sakon ikustekotan
omen dira aproposak.
Gure barrua arakatu nahi
du begirada zorrotzak.
Jadanik hasi dira entzuten
urduritasun-ahotsak:
Aizu mutiko, ez itzazu utz
agerian gure lotsak!*

*Gu izan behar ginen ikusle,
mutikoa da, ordea;
ahalmena du ikuskatzeko
norberaren barrunbea.
Zuk ez baduzu nahi, irakurle,
ikusi dezan zurea,
zalantzarik ez eduki eta
pasatu orrialdea.*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa **Non dago?**

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko sari bietako bat irabazteko zozketan parte hartu ahal izango duzu

Sopuerta Abenturara zein Cecilia Zabalaren kontzertura joateko sarrera bikoitzak gura izanez gero, maiatzaren 14a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (zein sari gura duzun adierazi):
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.

Sariak

Cecilia Zabala



Bilboko BBK Aretoan joko du maiatzaren 19an. 3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu, Producciones Serranori esker.

Sopuerta Abentura



Zuhaitz artean primeran pasatzeko jolas-parkea! Sarrera bikoitz 2 zozkatuko ditugu, 2019an zehar joan zaitez.



hiruka *app*

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

Agenda

Albisteak

Argazkiak eta bideo albumak

Geolokalizazioa

SOS botoia



Deskargatu!



BaPiruke



UDALEKU IREKIAK



1. Ekainak 24-28 | 2. Uztailak 1-12 | 3. Uztailak 15-26

NORI ZUZENDUA:

5-12 urte bitarteko umeentzat

NON:

- 1. txanda: Aldai patronatua (Algorta)
- 2. eta 3. txanda: Aldai Patronatua (5 - 7 urte), San Inazio eskolan (8 - 12 urte) eta Romoko eskolan (5- 12 urte)

PREZIOA:

- Bazkideek: 1.txandan 40 euro, 2. eta 3. txandan 85 euro txanda bakoitzak.
 - Bazkide ez direnak: 1.txandan 55 euro, 2. eta 3. txandan 115 euro txanda bakoitzak.
 - Getxon oinarritzko errenta jasotzen dutenek: *20 euro txanda bakoitzak.
- (Aldundiako ziurtagiria + NANaren fotokopia ekarri behar dira bulegora)

IZENA EMATE EPEA (aurretiko hitzordua eskatu behar da):

Bazkideek maiatzak 13 eta 14;

Bazkide ez direnak maiatzak 15 eta 16

Egunero 10:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30 ordutegian egongo gara bulegoan.

Hitzordua eskatzeko sartu www.bizarralepoan.eus helbidean eta eskatu hitzordua.

Hitzordurik gabe ez da izen ematerik onartuko.

Antolatzailea



Babesleak



Informazio gehiago:
también en castellano

www.bizarralepoan.eus
info@bizarralepoan.eus
94.491.03.87
Martikoa 16, 2 - 4 (Algorta)

Berbo dromoa

MAIATZAK 23

EUSKARAZ
ELKARTZEKO
GUNEA

MAIATZAK 23, OSTEKUNA

9:00etan Algortako San Nikolas plazan
11:00etan Algortako San Nikolas plazan
Lehen bi saioen ostean mokautxo.

19:00etan Romoko poteo gunean

20:30ean kantu-jira Romon

GAIAK

1- Pentsioak. Kezkatuta zaude
gaiagatik? Lana bizitzeko ala bizi lan
egiteko?

2- Sentimenduak adierazi. Sentimen-
duak adieraztera ohituta zaude?

3- Zaintza. Gurasoak seme-alabak ezin
zaindu. Gure nagusiekin zer? Ordainduta
egon beharko lirateke etxeko lanak?

8. EDIZIOAN IZENA EMATEKO

Formularioan:
www.egizu.eus/berbodromoa

Telefonoz: 619 935 541

Plazan bertan izena emateko aukera!

**Belarriprest eta
Ahobiziok, gogoratu
zuen txapa ekartzeaz**

**Bete ditzagun plazak
euskaraz!**



ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK

AROTZA | GURE ETXEA | LA MONA
MUSEO | TUDELILLA-BODEGUILLA
TXISKALES-ARRANTZALE



BABESLEAK

